ttipi ttapa

313

2001eko azaroaren 1a • XXI. urtea



## Bidasoaren Eguna azaroaren 10ean

03

Eskualdeko ingurumenaren egoera hobetzeko xedearekin sortu da Aizkolegi Taldea. Prestatu duen lehen ekitaldia, azaroaren 10eko Bidasoa errekaren eguna da.



## Xabier Mitxelena lesakarra Aspen

23

Urriaren 14an Naxeran egin zuen debuta profesionaletan Aspe enpresarekin Xabier Mitxelena 22 urteko atzelari lesakarrak. Lehen partidan garaipena lortu zuen.

# 04 Urdazubiko bibiroek 95 urte egin dituzte



III. KAFE ANTZERKI ZIKLOA BERAN

GILKITXARO
ANTZERKI TALDEA



TROKAOLATARRAK

Azaroaren 11n, arratseko 8etan
Zizka ostatuan

Azaroaren 18an
Arratseko 8etan
Bidaxka ostatuan
*Ander Lipus-en*
*«Minutu bakarra»*



Antolatzaileak: Berako Euskara Batzordea • Bortzirietako Euskara Mankomunidadea
Laguntzailea: Berako Udala




alkain
zeramikak eta bainuak
IRUN eta HONDARRIBIA artean
(aeroportu ondoan) Mendelu Poligonoa
Tfnoa.: 943 64 52 54 / Faxa: 943 64 58 55




Aizkolegi taldeko kideak, Bidasoa Errekaren Euneko aurkezpenean.

## AIZKOLEGI TALDEAK ANTOLATUA

# Bidasoaren Egunak erreka garbi kontzea eskatuko du azilaren 10ean

**2000ko urritik 2001eko ekaina bitartean Bertizko Parkean Ingurumen Hezkuntzako Mintegia antolatu zen. Jarduera honen bukaeran, mintegian parte hartu zuten zenbait lagunei, ekimen honetan segitzeko gogoa piztu zitzaien. Ondorioz, gure eskualdeko ingurumena hobetu nahirik, proiektu desberdinak burutuko dituen Aizkolegi Taldea sortu zuten. Egitasmo horien artean lehendabizikoa, azaroaren 10ean gauzatuko den Bidasoa Errekaren Eguna da. Erreka garbitzea eta jendea Bidasoaren egoeraz jabetzea dira egun honen helburuak.**

Aitor AROTZENA

Eskualdeko jendea elkartzen gaituen Bidasoa erreka abiapuntutzat hartu du Aizkolegi taldeak. Bere egoeraren diagnostikoa egin ondoren, erreka hobetu behar dela ikusi dute, *«balio naturalistikoa gal ez dezan»*. Zonaldeko jendea gai honen inguruan sentsibilizatu eta inplika dadin Bidasoa errekaren eguna antolatu nahi izan dute. Hau izanen da, hain zuzen, Aizkolegi Taldeak burutuko duen lehenengo proiektua, baina aitzinera begira bertze egitasmoak ere egin gogo dituzte.

Azaroaren 10ean, larunbata, ospatuko da Bidasoa Errekaren Eguna. Besta giroan, Bidasoa errekaren gunerik hondatuenak garbituko dituzte. Aitzinera begira, bildutako zaborren argazkiekin erakustaldia antolatuko dute.

Aizkolegi Taldearen ustez, ekimen honen etekina hirukoitza izanen da: *«Lehenik gizartearentzat izanen da mesedegarria, eskualdeko jendea Bidasoaren inguruan elkartuko baita errekaren arazoei aurre egiteko eta, bide batez, jendea ingurumenak dituen arazoekin sentsibilizatu eginen da»*. Ingurumenarentzat ere, noski, baliagarria izanen da azaroaren 10eko ospakizuna, *«baliabide naturalen kutsadura gutxitu eta estetika hobetu eginen baita»*. Ekonomia aldetik ere, ekimen onuragarria izanen dela diote antolatzaileek. Izan ere, *«bildutako hondakinak birtzikla daitezke eta, bertzalde, turismoa ere indartu daiteke: erreka garbi bat hobekiago saltzen da turisten artean»*.

### Dirulaguntza Nafarroako Gobernutik

Ingurumenaren gainean boluntario lana egiteko proiektu honek Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro Sailak emandako dirulaguntza jaso du, 1.157.105 pezetakoa (6954,34 euro). Proiektu honetan parte hartu nahi duten pertsona, erakunde eta elkarteek edo informazio gehiago jaso nahi dutenek, bileretan parte hartu edo 948 59 24 21ra deitzen ahal dute. Bertizen ez ezik, Bera, Doneztebe eta Elizondon egingkatu dira bilerak.



SASOI EDERREAN DAUDE URDAZUBIKO BIBIROAK

# Urdazubiko bibiroek 95. urtebetetzea ospatu dute familiakoekin

**Urdazubiko Luziano eta Nartziso Mihura bibiroak dira. Urriaren 27 eta 28an urtebetzetzea ospatu dute, 18 ordutako diferentziarekin sortu zirelako. Bibiro hauek duten berezitasuna euren adina da, 95 urte bete dituztelako. Oraindik osasuntsu dabiltza biak, bista eta entzumena pixka bat galdua dute, baina sasoi ederra dute. Sortetxean, Juanikotenea baserrian bildu ziren 95 urtetako gertakariak Ttipi-Ttapari kontatzeko. Zorionak eta aunitz urtez Nartziso eta Luziano!**

**Rakel Goñi**

Urriaren 27 eta 28an Luziano eta Nartziso Mihurak 95 urte bete zituzten. 1906. urtean Urdazubin sortu ziren bibiro hauek. Beraien amak 18 ordu pasatu zituen erditzen eta bizia galtzeko zorian egon zen egindako esfortzuarengatik. *«Gure aitzinetik amak alaba bat izan zuen baina hura 6 urterekin hil zen. Ondotik gu biak sortu ginen».* Aipatzen du Luzianok, bibiroen artean zaharrenak. Aipatu behar da Luziano eta Nartziso mellizoak direla, hau da itxuraz, aurpegiz eta gorputzez arras desberdinak direla.

Biak ezkondu ziren. Narziso Urdazubiko Maria Galainenarekin eta 10 seme alaba izan dituzte. Luziano, Urritzaten, mendian lanean aritu zenean, Dionisia Elorga bere emaztea ezagutu zuen eta 3 seme alaba dituzte. Nartzisok 67 urte bete ditu ezkondurik eta anaiak 48.

Juanikotenea baserrian, sortetxean elkarrizketa egiteko bildu genituen bibiroak. Berehala ohartu ginen aunitz maite zutela elkar. Luzianok brometan zioen: *«Nartziso, nik zuk baino bixkorrago igaiten ditut eskailerak. Bista ttikitua duzu, ez nik bezala».*

Xauli eta indartsuak izanak dira biak, batez ere Nartziso. Gauza harrigarriak egiten zituen bere zaulitasuna probextuz: *«Nik gimnasia egitea gustoko nuen eta ez zen inguruan nehor nik egiten nituen gauzak egiten zituenik. Aunitzek ez dute sinesten nik egiten nituenak. Ez dute eginen ere. Bi behatzekin atea hartzen nuen eta ostikoz sillarua jotzen nuen».* Inork sinisten ez zionez apostuak egiten zituen, behin 4 afari irabazi zizkien lagunei. Luziano ordea soldadu garaian egindakoaz oroitzen da batez ere: *«Lasterka aritzeko boluntarioak eskatu zituzten behin. Bi konpañia ginen eta 80 atera ziren. Hamamaka banatu gintuzten 8 hoberenak hautatzeko. Eta lehenbizikoa ni izan nintzen. Bigarrena errezildarra zen eta hirugarrena Santanderrekoa. Orduan zalu ginen»* gogoratzen du harrotasunez Luzianok.

##### SOLDADUSKA ETA GERRA GARAIA

Bi anaiak elkarrekin soldadu joan ziren Iruñera. Gero biei gerrara joatea tokatu zitzaien. Narzisok bi alaba zituen eta hiru izan balitu ez zuen gerrara joan beharrik izanen. Baina gogo handirik ez bazuen ere, gerra urteetan Jacara joan zen 30 urterekin. Luziano ordea Asturiasen egon zen: *«Nik ez nuen gerrara joan nahi, jendea gerrarako atxikitzen ari ziren, jendea behar zuten. Amak erran zidan denak joaten zirenez, nik ere joan beharko nuela. Espainiako iparralde guztia kurritu nuen»*. Asturiasen zorte handia izan zuen Luzianok, ondoan zituen lagunak etengabe hiltzen zitzaizkion, berari ordea zorionez ez zitzaion ezer gertatzen, *«ni beti ongi atratzen nintzen. Oroitzen naiz Azorin izeneko kapitain ezaguna nire ondoan zegoela, bala bat sartu zioten buruan eta buru kasko guztia xehetu zioten. Kañonazoak botatzen zituzten eta batzuk hil ziren eta bertzeak segi»*. Gerrak oroitzapen txarrak ekartzen dizkio Luzianori han lagun aunitz galdu zituelako: *«Gerra ez nuke nahi berriro ikusi. Izigarria da»*.

##### MENDIKO LANAK

Urte gogorrak pasatu behar izan zituzten Urdazubiko bibiroek. Garai hartan laborantzan edo mendian lan egitetik bizi zen jendea. Luziano, bixkirik zaharrena, Iratiko oihanean aritu zen, *«12 uda pasatu nituen han»*. Lanik ez zen Urdazubi inguruan eta Luzaide, Erronkari eta inguruetara joan zen, han arbolak botatzeko langile ainitz behar zituztelako.

##### URTEBETETZEA FAMILIAREN KONPAINIAN

Egun bereziak izan ziren urriaren 26 eta 27a, 95 urte betetzen dituzten bixkiak ez baitira ikusten maiz. Urtero bezala bi anaiak sortetxean bildu ziren bazkari ederra egiteko. Dauden adinean egonik, ehun urteak betetzea begibistan dute dagoenekoz Luziano eta Narzisok. Nartzisoren ustez oraindik aunitz falta da, 5 urte luze. *«Nagoen moduan egonta ez nuke nahi hil. Aunitzek erraten digute "Ehun urte beteko dituzue" baina 5 urte badira oraindik horretara ailegatzeko»*.

##### FAMILIAN ADIN HANDIKOAK BADIRA

Mihuratarren familian bixkien adinera iritsi zen norbait baden galdetzerakoan, hasieran ez ziren oroitzen baina pixkanaka adin handia izan zutenak gogoratu dituzte: *"amaren aita zena 91 urtetan hil zen, aiten aita 87 urtetan hil zen eta gure aita 86 urte zituela hil zen ultzerarekin"*.



**Mihura familiaren 3 belaunaldi. Goian Nartziso eta Luziano azken honen emazte den Dionisia Elorgarekin. Azpian ezkerrean Rosita, Narzisoren alaba, Antoñita Luzianoren suhia eta bere iloba Izaskun.**



### NEKAZARITZA

Nekazaritzan ere aunitz aritu dira bi anaiak. Garai hartan ez zen makinarik, sega, arrazteiu eta bertze tresnekin egiten zituzten lan guztiak. *«50 kilo belar eramaten genituen bizkarrean. Gero hasi ginen pixkaka-pixkaka behiekin, behokak ere patu ziren makinak hasi zirenean. Eta orain, traktoreak»* kontatu zuen Luzianok. Izan zuen ogibiderik nagusiena ez du oraindik atzendu eta ez zaio ongi iruditzen nekazaritza desagertzea: *«Nahiago nuke 20 urte izan laborantzan aritzeko. Lan hori sanoa da. Orain 12 etxek laborantza utzi dute Urdazubin. Diputazioneak laguntzak ematen ditu behiak kentzeko, eta niri gaizki iruditzen zait. Laborantzak behar du segitu eta gauza sobera biltzen bada bidali norapaitere! Goseak daudenei, horiei bidali!»*.



### KONTRABANDOA

Urdazubi inguruan kontrabandoari buruzko oroitzapenaz galdetu genuenean irriz hasi ziren bi anaiak garai hartako komeriak gogoratuz. Nartziso izan zen kontrabandoan gehien aritu zena: *«gure denborean ni ibili naiz anitz, gau ta egun. Guardiak baziren bideetan, baina gu mendiz altxapeka Elizondora ino gaten ginen. Gero zubiek pasteko beldur ginenez errekatik gaten ginen. Busti busti eginak, beti gelditzen ginen Fransenean eta ondotik bakar bakarrik etxera berriz oinez. Kafea, lenteak, botoiak, galtzerdiak... gauza anitz pasatzen genituen. Orain automobilez egiten dira gauza guztiak, oraiko gazteak ez dira gu bezala oinez ibiltzeko gai»*. Luziano guttiago ibili da kontrabandoan. Beharra bazenean bera ere ibiltzen zen baina ez Narziso bezala.

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## ...hartzunik ez duten ...ztuak

Bartzelona eta Gipuzkoako sarekadek komunikabideetan oihartzun zabala izan badute ere, ...alpean gelditu dira bertze zenbait informa...o. Orotara uztaila eta ...buztuan 35 pertsona atxilotu dituzte Ertzainak eta Espainiako segurtasun indarrek, miaketa ugari eta beldurgarriekin ...tera. Atxilotuetatik 23 inkomunikatuta izan dituzte, 10 Ertzaintzak eta 13 Guardia Zibilak. Er...tzaintzak inkomunikatuta izan dituen 7 pertsonek tratu txarrak eta tortu...ak salatu dituzte, eta gau...za bera egin dute Guardia Zibilak atxilotu zituen bertze bederatzik. Batzuei legez kanpoko itaunketa egin diete, abokaturik ga...e; bertze batzuek tortu...aren modurik basatienak pairatu dituzte.

Lege antiterroristak ...baimentzen duen salbuespen egoera batean ...gaude. Eskubide urrake...ta etengabe hauen au...rrean aunitz dira gure buruari egiten dizkiogun galderak: non daude giza eskubideetaz behin eta berriz aritzen direnen salaketak? Noiz arte izango dira entzungor tortura salaketen aurrean? Edo hemen batzuk ez dute giza eskubiderik?

Giza eskubideak ez dira komisaldegian bakarrik urratzen: Sakabanaketa politikari jarraiki, preso ugari lekualdatu dituzte azken boladan. Iñaki Saez eta Asier Herizek ondorio gogorrena jasan zuten Lurdes Txurruka presoa bisitatzera joan eta errepidean heriotza aurkitu zutenean. Espainian zehar sakabanatutako presoak bisitatzeagatik 1982tik 10 pertsona hil dira jada. Zauritutakoak dozenaka izan dira, eta berdin bide bazterrean txikituta gelditu diren autoak. Modu desberdinean Euskal gizarteak behin eta berriro eskatu du sakabanaketaren bukaera, baina Madrilek behin eta berriro uko egiten dio eskakizunari. Bistan da, sakabanaketak hil egiten du, sufrimentua sortzen du presoengan eta haren inguruan; erakunde, alderdi eta komunikabide nagusienentzako bigarren mailako sufrimendua.

**Lesakako Amnistiaren Aldeko Batzordea.**

## EuroBortziriak

Maiatzean Toki Ona Institutuko Guraso Elkarteak euroaren simulazio-esperientzia bat abian jartzea pentsatu zuen: Euro-Bortziriak. Aste batean euro faltsuak erabiltzean datza esperientzia hau: banketxetan jasoko lirateke txeke batzuen truke. Kontsumitzaileek beren erosketak pezetekin eginen lituzkete eta, gero, euro faltsuekin. Erosketen araberako puntuak jasoko lituzkete erosleek, gero puntu horiek banketxeek emandako opariekin trukatu ahal izateko. Guraso Elkartea Toki-Ona Institutua eta Cederna Garalur-ekin harremanetan jarri zen egitasmoa martxan paratzeko.

Lehenik antzeko esperientziak ezagutzeko bisitak egin genituen, Peralta eta Bilbora. Bigarrenik Nafarroako Gobernuko ordezkariekin bildu ginen, dirulaguntza lortzeko helburuarekin. Euroari buruzko dibulgazio materiala eman ziguten, gaztelaniaz bakarrik. Noski, material hau ez zetorren bat EuroBortziriaken filosofiarekin eta beharrezkoa zen material berria. Diruari dagokionean, 500.000 pezeta arte mugatu zen. Hirugarrenik Caja Navarrako Acción Euroko ordezkariekin izan egon ginen. Honek formazio eta dibulgazio materiala ordaintzeko dirua emanen liguke. Laugarrenik Bortzirietako alkateei egitasmoa azaldu eta dirulaguntza eskatu genien. Udalei aurkeztutako aurrekontua 1.500.000 ptakoa zen: Lesaka 440.000 pta, Bera 690.048 pta, Etxalar 142.912 pta, Igantzi 103.312 pta eta Arantza 123.728 pta. Baiezkoa eman ziguten Lesakako eta Igantziko Udalek; bertzeek ezin ziguten diururik eman. Hau guztia egin baino lehen, 200 bat gutun bidali genituen dendetara beren atxikimendua lortzeko. Hauek izan ziren emaitzak: Etxalar %33, Igantzi %50, Arantza %60, Lesaka %81 eta Bera %66. Parte hartze handia espero genuen. Martikok bere produktuak eman zizkigun simulaziorako; Deutsche Bankek bisera eta boligrafoak; Banco de Vasconiak giltzatakoak; BBVAk karterak, euro-bihurgailuak, giltzatakoak edo boligrafoak eta Caja Ruralek ardo botilak. Ikusten ahal denez, animazio eta dinamizazio lan handia egin da egitasmoa aitzinera atera ahal izateko, baina dirua beharrezkoa zen eta dirurik ez genuen. Udal batzuen ezezkoaren aitzinean, EuroBortziriak bertan behera utzi behar izan dugu. Azpimarratzekoa da proiektu honetan gizarteko sektore ezberdinek parte hartu behar zutela: dendak, institutua, udalak, banketxeak eta Nafarroako Gobernua. Bertzalde, Bortzirietako biztanle guztiengan eragina izateko sortua zen, jubilatuak, etxekoandreak, ikasleak eta orohar txanpon berri bat heldu dela badakien kontsumitzaileak, baina hura simulazio bidez ezagutzeko paradarik izan ez dutenak. Erran gabe doa pena handia ematen digula euroaren simulazio-esperientzia aitzinera ateratzea ezinezkoa izatea.

**EuroBortziriak koordinatzailea.**


Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
✆ 948 630 763


BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
121 errepide nazionala, 54. km • Tlnoa: 45 23 74 • IRURITA


PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
✆ 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D. Noticias, 01eko urriaren 14a

*«Behi eroarengatik baserriko animalia guztiak akabatu zituztenean ez nuen sinesten ahal, tokatzen zaizun arte ez dakizu zer den eta orduan akabo zara. Zerotik hasi behar zen eta momentu hartan ez nuen indarrik. Urte erdia pasatu ondotik, duela 2 hilabete 80 ardi erosi nituen, eta urriaren 9an pirenaika arrazako 10 behi eta aratxe bat iritsi dira. Belaiak baditugu eta ezin ditugu ibili gabe utzi. Hasieran emazteak ez zuen nahi baina azkenean aziendak erosi ditugu. Ez da bidezkoa izan behi batengatik nituen guztiak hil behar izatea».*

Javier MINDEGIA
Arraiozko abeltzaina
D.Noticias 01-10-14

*«Izokiarendako urte ona izan da eta hagitz urte txarra, bertze urte batez, amoarraiarendako. Amoarraien alde ez da kasik deus egiten».*

Manuel ROMERO
Berako Ehiza eta Arrantza Elkarteko lehendakaria
D.Noticias 01-10-25

## • 11 GALDERA LABUR •



### Arkaitz MINDEGIA *Aurtizko trikitilari, aurkezle, zurgina*

**• Aurtizko bestetan, besta egiten edo antolatzen pasatzen da hobeki?**
Besta egiten, baina ilusioa ere egiten du bestak antolatzen aritzeak.

**• Ligatzen al da bestetan?**
Ummm… hori pasatzen ahal da?

**• Non gustorago: kiosko gainean kantari edo plazan dantzan?**
Kiosko gainean gehiago bizitzen dut, jendea dantzan ikusten eta…

**• Iñauteriak ala Aurtizko bestak?**
Iñauteriak, herriko jendea, zahar eta gaztea, elkarrekin izaten gara eta elkarrekin egiten dugu besta.

**• Bestetako programan zein da gehien gustatzen zaizun ekitaldia?**
Trikitixa jaialdia eta herri bazkaria.

**• Ttipi-ttapa Telebistan berriak ematen hasi behar duzula… zeri buruz izanen da lehenengo erreportaia?**
Bestei buruzkoa, orain datozelako.

**• Zein telebista saiotan gustatuko litzaizuke lan egitea?**
Sorginen Laratzan.

**• Zein da zure musika talde eta kanturik gustokoena?**
Talde gisa Etzakit gustatzen zait, eta kantua «Maitasun balitzan» Idi Bihotzena.

**• Zein plazatan duzu gustokoen musika jotzea?**
Edozein plazatan joko nuke gustura, Nafarroa Oinezen, Herri Urratsen…

**• Asteburuarako zure plan ideala?**
Kanpin denda hartu eta norapait joan, besta egin gauez giroa aldatzeko.

**• TBn lan egin, musika taldea eta zurgindegia bateragarriak dira?**
Stresa nabaritzen da batzutan. Colacao Chipita batekin hartu eta kitto!

TIBURCIO GOENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
■ Zurich Aseguruak
• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
■ Lan aholkularitza
• Nomina eta Aseguru Sozialak
■ Aholkularitza fiskala
• Errenta Deklarazioak, IVA…
■ Inmobiliaria
• Baserri, borda, pisu, etxebarren salmenta eta alokairua
■ Gestoria
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak
Santiago 15 • Tfnoa eta faxa: 948 580804 • ELIZONDO

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak
ERREKALDE
ostatua
Tfnoa: 948630259 - BERA

Xirgil
© 948 631462
Altzate 1 • BERA

ERROTAZAR
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA

ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

KAXULA
- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak
Albistur, 51 LESAKA
© 948 63 75 58

HEZKUNTZA

# Nafarroako Gobernuaren hizkuntz politika salatu dute ikastetxetako zuzendariek

## Sindikatu eta Guraso elkarteek ere UPNren dekretuarekin ezadostasuna azaldu dute

**tipi-ttapa**

Azken urtean Nafarroako Gobernua egiten ari den hizkuntz politika salatu zuten urriaren 16an hainbat sindikatuk, D ereduan lan egiten duten hainbat zentrotako zuzendariek eta guraso elkarteek, Iruñeko Hezkuntza Sailaren aitzinean. Batik bat atezainentzako eta bulegarientzako euskara beharrezkoa ez dela dioen iraileko dekretua gaitzetsi zuten.



Gara

**Eskualdeko ikastetxeetako zuzendariak ere dekretu berriaren aurkako agerraldian izan ziren Iruñean.**

CCOO, ELA, LAB eta EILAS sindikatuek eta Herrikoa eta Sortzen-Ikasbatuaz guraso elkarteek ez ezik, Gobernuaren dekretua salatu dute honako ikastetxetako zuzendariek: Eunate, Alaiz, Iturrama, Askatasuna, Biurdana, Berako Toki Ona, Lekarotz-Elizondo, Irurita Gotzaia, Orreaga, Garralda, Agoitz, Leitza, Zizur, Doneztebe, Altsasuko Aratar Mikel Deuna I eta II institutua.

Izan ere, D eredua duten edo D ereduko zentroetan elebakarrak diren langileak, atezain eta bulegariak, jarri nahi ditu UPNk. Orain arte euskararen erabilera bermatzen zuen espazio fisiko bakarra ikastetxea izan da, baina aldaketarekin ezin izanen dute hori bermatu. Ondorioz, *«non daude orduan nafar guztien hizkuntza eskubideak eta non dago kultura anitzeko trataera, berez Nafarroakoa den hizkuntza errespetatzen ez bada?»* galdetzen dute idatzian.

### Atezain erdalduna

Txantreako Eunate institutuan saiatu da Gobernua dekretua lehenik aplikatzen. Atezainak gaixo-agiria hartu zuen, eta ordezko elebakarra bidali zuten Nafarroako Lehendakaritza sailetik. Zuzendaritzak salatu zuen hori ez zela bidezkoa, eta aldaketa eskatu ondoren, euskaraz zekien bat bidali zuten.

Dekretuaren helburua *«elkarbizitzaren giroa hautsi eta arazoak sortzea»* denez, taldeok kexa helaraziko diete Parlamentuko alderdiei. Aurten argitaratutako euskararen aurkako dekretuak *«balionik gabe uzteko»* lege ekimenak abiatu ditzaten eskatuko diete.

Bereziki atezain eta bulegari postuetan euskara menderatzeko beharra ezabatu delako, kezkatuta ageri dira idatzian. Atezainei dagokienez, *«kanpoko jendeak zentroarekin duen lehendabiziko harremana ematen du eta eskolako beste kideekin harreman zuzena du»*, gogorarazi dute. Bulegariek, berriz, *«zentroko komunikazio hizkuntza ezagutu eta ongi menderatu behar dute, idazkiak, txostenak, jendearekin harremanak behar bezala bete ahal izateko»*, nabarmendu dute. *«Norengana joko dute ikasleek, euskaraz dakien pertsonarengana edo haien nahiak azaltzeko itzulpena egin beharko diotenarengana?»* galdetu dute azkenik.


Lanchas
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tlfnoa: 948630018 • BERA

TXIRULA
loredenda
Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

belardenda
Mediku naturista kontsulta
Masajista
Haritza
Legia 1, behea • BERA • ✆ 948 630652

BERA

# Iasolako iturria moldatuz herriko ur hornidura hobetzen ari da Udala

## Azaroaren 11rako akautuko dituzte moldaketa lanak

Asier GOGORTZA

Berako urtegira ur gehien ekartzen duen iturburua Iasolakoa izandu da betidanik. Landagaitan sortu eta Usategietan barna pasatzen dena hain zuzen. Azken urteetan aski egoera kaxkarrean zegoen uralitazko ur-bide hori, eta Udalak tuberia guzia moldatzea erabaki du. Urriaren 11n hasi zen lanean Sasoi Eskabazioak enpresa, eta kontratuaren arabera hilabete bateko epean akautu beharko dituzte obrak.



Arkaitz AROTZENA

**Matzadako eta Ilekuetako (argazkian) zubiak zabaltzeko obrak hasi dira dagoeneko, eta 6 hilabeteko epea izanen dute lanak akautzeko.**

Bitartean herriko ura Lesakako depositotik garraiatzen ari dira, eta horregatik moteltzen da arratsetan uraren presioa, izan ere. Alkaiagako depositoa Berakoa baino 10 metro beheitiago dago. Berako Udalak Lesakakoari erosi dio hilabete honetan herria hornitzeko beharrezkoa den ura.

Honen harira, Udalak moldaketa lanek irauten duten bitartean ur kontsumoa neurtzeko eskatu die herritarrei.

### Ur zikina

Uraren gaiarekin segituz, Berako bizilagunek arrenkura agertu dute iturriko ura zikina heldu zelako. Alkateak adierazi digunez, suhiltzaileak mendiko ur deposito bat egokitzen ari zirela sortutako ur isuri batek ekarri du arazoa. Idoia lepoaren ondoan, Igertzeko errekan, suak itzaltzeko putzu gisako bat egiten ari dira eta hor pilatua zegoen ura Matxaingo depositora joan da zuzenean, zolako lohia altxatuz. Horregatik izan da egunotan ur zikin xamarra etxeetan, eta ez euri eskasiagatik, aunitzek pentsatu duten bezala.

KULTUR EKITALDIAK

### *Musika, literatura eta antzerki emanaldiak izanen dira egunotan herrian*



Azaroaren 4an Hegoafrikako Koralak abestuko du arratsaldeko 7,30etan Kultur Etxean eta azaroaren 9an Mikel Tabernak bere liburu berria aurkeztuko du toki berean. Azaroaren 11n, berriz, Gilkitxaro antzerki taldeak Kafe Antzerki zikloa irekiko du Zizka ostatuan. Trokaolatarrak antzezlana eskainiko dute.

FLASH

### *Eneko eta Xabi, epaituak*

Astelehen honetan epaitu dituzte Eneko Zestau beratarra eta Xabi Resano iruindarra. Fiskalak 14 urteko gartzela zigorra eskatu zuen bakoitzarentzat inongo probarik izan ez arren. Lerro hauek idazteko orduan orandik ez genuen epailearen erabakiaren berri.

Epaiketa egunean senide eta lagunek beteko autobusa joan zen Beratik Madrilera.

### *Diskono musika taldea*

Eskoziako musikari bikoteak kontzertua eskainiko du urriaren 31n Berako Kultur Etxean. Ertz kolektiboak antolatu duen kontzertu honek ere musika esperimentala izanen du oinarri.

Azaroaren 2an, berriz, Pui ostatuan joko du Jabier Sun kantautore gipuzkoarrak, arratseko 9etatik aitzinera.

### *Espidobaita elkartearen oharra:*

«Mila esker aunitz Nafarroa Oinezen lana egiteko deialdiari erantzun zenioten guzieri».

### *Udal zergak*

Azaroaren 22a arte zabalduta dago 2001.eko bigarren seihilekoaren Kontribuzioaren eta tasen ordain-agiriak ordaintzeko borondatezko epea. Ondoren, exekutibo bidez kobratuko dira, interes eta bertze gastuak gehituta.

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • ✆ 948630083 BERA

ZALAIN JATETXEA
Zalain Auzoa
✆ 948631106
BERA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira

bortzIRUDI
BERA
FOTOKOPIAK
ENKUADERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
FAXA, E-MAILA
SKANNERRA
PAPERTEGIA
ARGAZKI MUNTAIAK
DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULAZIOA
PUBLIZITATEA
Eztegara 20 behea
Tel.- Faxa: 948 63 15 21

LESAKA

# Euskal Herriko Bertsolari txapelketako saioa larunbatean

## Xabier Silveirak hartuko du parte arratsaldeko 6etatik aitzinera frontoian

Aitor AROTZENA

Abiatua da lau urtez behin jokatzen den Euskal Herriko Bertsolari txapelketa nagusia. Nafarroako txapelketan lortutako emaitzei esker, hiru lesakar izanen dira txapelketa horretan: Iñigo Olaetxea, Xabier Silveira eta Estitxu Arotzena. Hori gutti balitz, azken laurdenetako kanporaketa saio bat aditzeko modua izanen da herrian bertan, larunbat honetan. Arratsaldeko 6etatik aitzinera, Xabier Silveira herritarrarekin batera, Aitor Mendiluze eta Ainhoa Agirreazaldegi gipuzkoarrak, Arkaitz Ugartetxea eta Iratxe Ibarra bizkaitarrak eta Asier Otamendi arabarra ariko dira udal pilotalekuan. Estitxu Arotzenak ere aste hondar izanen du lehendabiziko saioa, igande arratsaldeko 5etan ariko baita Elorrioko Arriola antzokian, Igor Elortza, Unai Agirre, Bittor Elizagoien, Aritz Zerain eta Igor Muriategirekin batera.

Iñigo Olaetxea urriaren 21ean aritu zen Donibane Garazin eta ez zuen hurrengo kanporaketarako txartelik lortu.



Aitor AROTZENA

**Iñigo Olaetxea, Estitxu Arotzena eta Xabier Silveira, herriko hiru ordezkariak Euskal Herriko Bertsolari txapelketa nagusian. Iñigo Donibane Garazin aritu zen eta ez zuen final laurdenetako txartelik eskuratu. Estitxu eta Xabier aste hondar honetan ariko dira Elorrion eta Lesakan bertan.**

FLASH

### *Biztanlego eta Etxebizitza inkesta*

INE (Instituto Nacional de Estadística) erakundeak herriko hiru lagun kontratatu ditu Biztanlego eta Etxebizitza Estatistika egiteko. Igor Portu eta Eneko Fernandez ari dira etxez etxe mugitzen eta Itziar Alvezek egiten du bilketa lana Herriko Etxean. Etxebizitzei buruzko galderak (neurriak, instalazioak...) eta bertan bizi den jende kopurua jasotzen dute. Urriaren 22an hasi eta bi hilabeteko lana izanen dute.

### *Udal Hirigintza Planaren barnean*

interesko etxebizitza eta osagarrien inbentarioa eta katalogoa egin du Udalak. Lesaka, Alkaiaga eta Zalain guneetako eraikuntzak aztertu dira eta bakoitzaren ezaugarrien arabera, bortz babes maila eman zaie.

KIROLA

### *Derbia galdu zuen Beti Gazteko jubenilen taldeak urriaren 20an*

Urriaren 20an jokatu da denboraldi honetako lehen futbol derbia Mastegin, Beti Gazte eta Gure Txokoako jubenilen artean. Beratarrek 1-3 irabazi zuten, ongi nagusitu ondotik. Dena den, epailearen lana kaxkarra izan zen, txartel hori bakarrarekin espultsatu baitzuen Iñaki Zudaire etxeko jokalaria. Talde gaztea (gehienak lehen urtekoak) ari da aurten Endika Mendegia eta Aitor Arotzena entrenatzaileak eta Leire Portu prestatzaile fisikoaren erranetara. 19 jokalarietatik 12 lesakarrak dira eta 7 doneztebarrak.



Juanjo E.

**12 lesakar eta 7 doneztebar ari dira aurten Beti Gazteko jubenil taldean.**

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANA
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
948637573 • LESAKA

kixkur
ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

ETXALAR

# Euskal Nortasun Agiria elkarteak Etxalar aukeratu zuen bere eguna ospatzeko

## Giro ederrean eta bisitari aunitzekin joan da aurtengo Usategietako Igandea

**Joseba eta Nerea**

Duela 2 urte sortu zen Euskal Nortasun Agiria deitutakoa bultzatzen duen ekimena. Dagoeneko 27.500 agiri eginak ditu eta gehiago sortzeko intentzioz ENA eguna ospatzen hasi zen iaz. Lehendabiziko aldi hartan Bermeon burutu zen ENA eguna eta aurtengoan Etxalarrek hartu dio lekukoa. Honen arrazoia Etxalar izan zela Nafarroan ENAren aldeko mozioa onartu zuen lehenbiziko herria da.



Nerea MITXELTORENA

**Aurtengoan bigarren urtez segidan Usategietako Igandeko bezperako afaria egin zen Anttonion. Argazkian ikusten den moduan aski giro polita sortu zuten bildutako 60 lagunek.**

Modu honetan, joan den igandean, urriaren 28an, Etxalar hainbat kanpotarrek hartu zuten eta hauek egun guzian zehar ekintza ugari burutzeko parada izan zuten. Besteak beste, goizeko 11etan adarra eta txalapartarekin eman zitzaion hasiera egun honi. Ondotik, Batzar nagusi irekia izan zen eta 12:30etan Nazionalitate bikoitza gaitzat harturik hitzaldia izan zen. 2'00etan ENAren aldeko adierazpena sinatu zuten udal-ordezkariek, partiduek eta elkarteek jarraian herri-bazkariari bide emateko. Bazkalondotik, bertsolariak aritu ziren kantuan eta eguna akautzeko musika-jaialdia izan zen Urgaberen eskutik.

Honetaz gain umeentzako jolasak izan ziren egun guzian zehar eta ENA tramitatzeko aukera ere izan zuten hurbildutako guziek.

### *Usategietako Igandea*

Denak beldur ginen eguraldiak lagunduko ote zuen edo ez baina azkenean bere aurpegirik politena erakutsi zuen eta aurtengo Usategietako Igandea giro aski ederrean joan zen. Goizean goiztik Usategietako gaina jendez bete zen urteroko ohiturari jarraituz. Haizegoa dela eta, ez zen usorik pasatu eta ondorioz bertara hurbildutakoek ez zuten usazaleen lana ikusteko aukerarik izan. Arratsalde partean ere bai Kiki, Koko, Moko eta Flash pailazoek eta baita Bigira taldeak ere jende andana erakarri zuen plaza ingurura.

Antolatzaileak hagitz gustora agertu ziren egun honen arrakastarekin. Aipatu 1. saria (12 uso bizirik) Etxalarren gelditu zela. Aldalurreko Beñat Maiak lortu zuen saria 3.341. zenbakiarekin. Bigarrena berriz Igantziko Inaxio Goienetxek eskuratu zuen, hain zuzen ere Etxalarko bestetan motozerra erakustaldiak eginiko hiru egurrezko figura. Altxata Kultur Elkarteak lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkie bai Andra Mari dantza-taldeko kideei eta baita egun hau aitzinera ateratzen lagundu zuten herritar guziei ere.

### *Lau haur bataiatuak urriaren 28an*

Joan den igandean, urriak 28, lau haur bataiatu ziren. Hauetako hiru herrikoak: Elene Alzuguren, Aimar Iparragirre eta Mikel Indaburu. Eta bat irungoa: Jone Iñigiz.

HARITZPE
JATETXEA
948635235
948635038
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Egunero idekia. Asteazkenetan atseden eguna.

LEGARRA
Legarra, 9 • ☎ 948 63 00 • LESAKA
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak
Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA

ETXALAR



IGANTZI

# Helbideak zuzentzeko kanpaina hasi du Posta Zerbitzuak

## 11 lagun joan dira herritik Europa erdialdera Giltzarri Abesbatzarekin

Oskar TXOPERENA

Arantzan orain dela hiruzpalau hilabete egin zen bezala, etxeetara bidalitako gutunaren bitartez hasi du Posta Zerbitzuak edo Correos-ek helbideak zuzentzeko kanpaina. Gutunak dionez, abenduaren 15era arteko epea izanen da etxeetan hartzen dugun karta, zertifikatu, erenbolso edo paketeetan helbide zuzena paratzeko. Horretarako, azkeneko bilkuran Udalbatzak onartutako helbideez informatu die herritarrei, beharrezkoa den leku guzietan jakinarazteko. Bidebatez, etxe guzietan buzoiak edo kartak uzteko leku egokiak paratzeko ere eskatu du.



Oskar Txoperena

**Herriko eskolan izan genuen joan den astean Xorroxin Irratia. Egunero ordu eta laurdeneko emanaldia prestatzeko lan haundia egin behar izaten dute haur eta irakasleek aitzineko asteetan, eta ikusi egin behar da nolako gogo paratzen duten gauzak txukun-txukun ateratzeko.**

Helbide berriez ari garenez, Udalbatzak onartutako aldaketarik nabarmenenak lau direla erranen dugu: Alde batetik, Estoganaga eta Okolburu auzo berriak sartu dira erroldan, eta bertzetik, Lasaga eta Elusta auzoen izenak egokitu dira, hemendik aitzinera Latsaga eta Elutseta izanen baitira. Hurrengo fase batean etxeen izen ofizialak ere onartu nahi dira, baina horretarako Euskaltzaindiari bidaliko zaio dagoen dokumentazio historiko guzia.

### *Giltzarri Abesbatzarekin Europara*

Hamaika herritar ditugu egunotan Europa erdialdean, Giltzarri Abesbatzak antolatutako bidaian, zazpi abeslari eta bertze lau laguntzaile, nolabait erranteko. Joan den larunbat arratsean atera ziren autobusez eta heldu den igandean dira itzultzekoak. Aste luze honetan hiru hiri bisitatuko dituzte nagusiki: Ginebra, Viena -bertan abestuko dute meza eta emanen dute kontzertua- eta Venecia.

Herria ezagutuz



*Plazentako Martin Jose Semper*

Plazentako jabeetako baten pasadizo edo istorioa dakarkigu oraingoan gure xoko honetara.

Sempertarrak izan ziren Plazentako nagusi XIX. mende gehienean. Garai hartan denda eta taberna ere izaten ziren bertan. Bada, jabeetako bat **Martin Jose Semper** izan zen, personaia berezia, dudarik gabe, Amerikotan ere ibilia izaten baitzen. Herrikoetxeko artxiboan ageri denez (26/3 kaxa), 1852an etxea eta lur guziak galtzeko zorian egon zen *«por construcción de moldes para acuñar moneda»*, hau da, dirua faltsifikatu nahi izateagatik. Kontu hau zela medio, etxea eta baratzea, Zelagaraieta, Landabizkar eta Garroko aldapako lurrak eta Arrixurietako irazelaiaren gainean jarri zioten enbargoa. Ez zizkioten azkenean kendu, 1867an, erre zenean, etxea bere izenean baitzen oraindik. Hala ageri da Cenon Bergara, orduko Alkatearen zertifikatu batean: *«un incendio casual redujo en su mayor parte a cenizas la casa Placenta de Martin José Semper»*.


CONSTRUCCIONES MECANICAS B BERRIZKUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadora, erraktifikadora
Igantziko Bentak • ✆ 948 637572 • Faxa: 948 637505

BERA DESINFECCIONES
Zure inguruan klase guztiako insektu (zomorro, zeaune, armiarma, kukuso...) eta arratoi-saguekin garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Pipiien kontrako tratamendua
✆ 948630155
BERA

KOXKILA OSTATUA

Zarantia, 4 - LESAKA

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • ✆ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313


LESAKA

ARANTZA

# Baserrietako pisten zolaberritze lanak aintzinduak dira

## Angulero ondoan depuradora egiteko lanari hasiera eman zaio

Nerea ALTZURI

Ez zaie aunitz gelditzen Sasoi eskabazioak enpresako langileei lau auzoetako baserrietara doazen pistak zolaberritzen akautzeko. Bordalarrea, Aientsa eta Azkilarrea auzoetan moldatu beharreko bideak egin ondotik, Eguzkialdea auzoan Irulegi aldea eta Aranoko erreka aldeko pistak zolaberritzen ariko dira orain. Albiz eta Galtzada aldekoak burutu dituztela kontuan hartuz. Egunero bide hauetatik pasatu behar duten herritarrek nabarituko dute dagoeneko pisten egoera hobea; ibilgailuen ahoetatik zail xamar, baina herritarren solasetan kontent daudenaren keinuak agerian dire, bai!



**Eskulan ikastarorako dirulaguntza eskaera egin zuen Herriko Etxean Nafarroako Emakumearen Institutuan. Dagoeneko 227.250 pezeta jaso ditu.**

Herriko ur zikinak garbituz, erreka gisa horretan garbi edukitzeko ere, Angulero ondoan depuradora egiteko lanak abiatuak dira. Egunotan, herritik hasita, ur zikinak eramateko tubo berriak paratzen ari dira. Horrela, herriko ur saneamenduko sarean zenbait aldaketa eginez, orain diren bonbeoak kenduko dira. Lan honen ardura Nilsa enpresa publikoak hartu du, 62.078.530 pezetako aurrekontuarekin.

## FLASH

### Zaborra

Hemendik aintzinera Traperos de Emaus-eko langileek astean behin, asteazkenetan bilduko dituzte tamaina handiko hondakinak. Hori bai, interesatuek aste bat lehenago horren berri eman beharko duzue, 948 635254 telefono zenbakira deituz. Beraz, ez sartu zaborrontzietan, ezta hauen ondoan zaborrik utzi ere baldintza hauek bete ezean.

### Inkesta

Hasi da lanean Inaxio Fagoaga Bergara Zuzainkoa: Arantza eta Igantziko biztanle eta etxebizitzen zentsoa egiteko kontratatu baitu INEk. Estatistika lan hau egiteko etxez etxe dabil azken asteetan, etxebizitzari buruzko hainbat galdera egiten eta, era berean, etxebakoitzean bizi diren lagunen datuak ongi dauden ziurtatzen. Hilabeteko epean bildu behar ditu datuak. Beraz, herritarrari hau jakinaraziz, esku bat botatzea eskertuko zaio.



EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tlfnoa: 948 630 699 - BERA



MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA
ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
• Diabetia • Asma • Buruko mina • Olnen izerdia
• Larru azaleko alergia • Zistitisak • Prostata, etab...
IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
• Miopia
• Bista alfertua
• Estrabismoa
• Begi lausoak-kataratak
GIHARRE ARAZOAK
• Bizkortzea
• Artritis, erreuma
• Artrosia, Lunbalgia
• Bihurdurak, etab...
KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 13etara, Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu
✆ (943) 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorrak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...



☎ 948 63 10 03
Fax: 948 63 10 03
Alkaiaga Ind.•Baldrun. 8 • LESAKA - BERA
PERTSIANAK
ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK



BEINTZA-LABAIEN / DONAMARIA / OITZ / URROTZ

# Aurtengo udal aurrekontuak onartu dituzte lau herrietan

## Donamariako Azkarraga auzoan ia 45 milioi inbertituko dira

ttipi-ttapa

Beintza-Labaien, Donamaria, Oitz eta Urrozko udal aurrekontuak onartu dituzte.

Beintza-Labaienen 35.375.547 pezetako aurrekontua dute. Honetatik 16.472.547 inbertsioetan erabiliko da. Kanposantua handitzeko 7 milioi terdiko aurrekontua dute eta hirigintza plana egiteko 4 milioi. Udaletxeko teilatua eta bertze moldaketak egiten 2 milioi joanen dira.

Donamariako aurrekontua 97.181.000 pezetakoa izanen da aurten, inguru honetako handiena. Inbertsioetan 69.234.000 pezeta joanen dira. Azkarraga auzoko karrikak moldatzeko 21 milioi erabiliko dira eta saneamendu lanetarako 13.650.000 pezeta. Ura hartzen den lekutik depositora bitarteko sarea egiteko 19.250.000 pezeta gastatuko dira. Mendi lanetan 6.800.000 pezeta joanen dira eta udal hirigintza planean 6 milioi pasatuak. Bi kanposantuak moldatzeko 1.800.000 pezetako aurrekontua izanen da.

Oizko aurrekontua 40.308.733 pezetakoa da. Inbertsioetan 14 milioi baino gehixeago joanen dira, gehien bat mendiko lanetan (9.475.000 pta) eta udal hirigintza plana egiten (2 milioi terdi). Herriko Ostatuko kalefakzioan eta paretak moldatzen bertze milioi terdi pasatua joanen da.

Urrotzen, azkenik, 46.891.612 pezetako udal aurrekontua izanen dute. Kasik 22 milioiko inbertsioak eginen dira: mendiko lanetan 8 milioi terdi, Leurtzako moldaketetan 4 milioi, frontoiko komunak eta dutxak egiten 3.651.000 eta Udaletxeko aitzinaldea konpondu, altzariak eta informatika gastuetan 3.387.000 pta.



ARTXIBOKOA

**Donamariako Azkarraga auzoa ederki hornitua gelditukoda aurten. Auzoko karrikak moldatzeko 21 milioi pezeta erabiliko dira eta saneamendu lanetarako berriz, 13.650.000 pezeta.**

BERTIZ

# Ehizari buruzko Ihardunaldiak hasi dira jatetxeetan

ttipi-ttapa

Bertizko Turismo Partzuergoak bederatzigarren aldiz antolatutako ehizari buruzko ihardunaldi gastronomikoak azaroaren 1etik 30era eginen dira eskualdeko zenbait jatetxetan. Zehazki, Almandozko Beola, Arantzako Burlada, Berako Zalain, Donamariako Benta, Doneztebeko Ameztia, Elizondoko Eskisaroi, Igantziko Igantzi, Iruritako Olari eta La Taberna del Fotografo eta Lesakako Kasino eta Koxkonta jatetxeek hartuko dute parte.

### *III. Paxaka txapelketa*

Laxoa Elkarteak hirugarren aldiz plantatu du Paxaka txapelketa. Izena emateko epea azaroaren 14a arte zabalik izanen da. 948 452140 (Josu Prim) edo 948 450643 (Tiburtzio Arraztoa) deitu behar da.



APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

PIKABEA pinturak

Molinero drogerian galdetu

*Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu*

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ✆ 948 630240 - 948 631495 • BERA

## ITUREN

# Aurtizko San Martin bestak azaroaren 9tik 12ra

Igande eguerdian neskek proba konbinatua eginen dute bigarren urtez



Koianea Ttikia pilotalekuan Painuluaren dantzan: Etxeberriko Patxi, Jourdaneko Tiburtzio, Tailerreko Sagrario eta Maria Esther, Apezeneko Terexita, Fermin Jourdaneakoa zena, Engraxi Kamiokoa, etab...

### Ortzirala 9

**20:00etan** altxaferuarekin emanen zaie hasiera bestei. **Ondotik** herriko txistulariek Aurtizari buelta emanen diote kalejiran. **Gero** zopak izanen dira Aurtizko Ostatuan. **Gauez**, JALISKO BANDekin dantzaldia izanen da.

### Larunbata 10

**9:00etan** kalejira. Argisoinuak herriko txistulariekin. **16:30etan** plater tiraketa. **18:00etan** haur jokoak Koianea Ttikia pilotalekuan. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia MINDEGIA TRIKI DANTZ taldearekin. **Gauez** JALISKO BANDek jarriko ditu dantzatzeko doinuak.

### Igandea 11

**Goizean goiz** argi soinuak txistulariekin. **12:00etan** Meza Nagusia Tourseko San Martinen ohorez. **13:00etan** herriko nesken II. proba konbinatuak. **17:30etan** trikitilariek herriari itzulia emanen diote (eguraldiak laguntzen badu. **Ondotik** trikitixa jaialdia Koianea Ttikia pilotalekuan: Lesakatik, Beratik, Sunbillatik, Iturendik eta bertze herri batzuetatik etorritako ikasleak arituko dira. **Arratsalde bukaeran** ZIOREK taldeak alaituko ditu bazterrak.

### Astelehena 12

**Goizean** argi soinuak herriko txistulariekin. **11:00etan** mus txapelketa. **14:00etan** herri bazkaria elkartean, Mañukorta eta Peñagarikano bertsolariekin. **Arratsaldez eta gauez** JOXE ANGEL akordeolaria.



Beteneko atarian egiten zen bazkariko dantzaldian: Trini Errandeneakoa, Asun Arretxeakoa, Fermin albintea eta bazter batean ttiki-ttikiak direla, Mª Joxe Eguzkialdekoa, Gema Tomasenekoa... Eguraldi ona zuten San Juan egun hartan. Garai hartan Iturengo bestak Aurtizkoekin batera ziren.

## SUNBILLA

# Udal bulegoak zabaldu dira Herriko Etxe berrituan

ttipi-ttapa

70.183.007 pezeta gosta da azkenean Herriko Etxea moldatzeko egindako lana. Cerain-Asfaltos Naturales de Campezo enpresak egindako azken likidazioaren arabera. Udalak 53.634.071 pezeta ordainduak ditu dagoeneko eta azkeneko 16.548.936 pezetak ordaintzea falta da orain.

### *Helikopteroak lur hartzeko lekua*

Osasunbideatik adierazi dutenez, osasun atentzioa hobetzeko helikoptero medikalizatua kontratatzea aztertzen ari dira. Horretarako lur hartzeko leku egokia eskatu diote Udalari. Azkeneko batzarrean, udalak ez zuen leku zehatzik eman. Dena den, zubi berriaren ondoan, kaltzadan beraan, kanposantua eta Rosario Galarregiren lurren artean kokatzea proposatu zuen.

### *Dirulaguntza Saharara*

Udalak 100.000 pezetako dirulaguntza eman du, Saharako herriari janaria eramateko. Enbakia ahobatez onartu zen, baina ez zen zehaztu zein erakundek jasoko duen dirulaguntza

616 513 491
PITTI
ESKABAZIOAK

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

## GOIZUETA

# Elkartasun deialdia herritarrei

Larrialdietarako anbulantziaren boluntarioen aldea handitu nahi da



Esteban AROTZENA
**Larrialdietarako anbulantziaren taldea ageri da argazkian. Angel Salaberria falta da.**

Esteban AROTZENA

Herriko Etxetik luzatutako deialdiak erantzun harrigarria jaso ondoren, gaur egun 22 kide dituen su-hiltzaile boluntarioen taldea osatu zen herrian orain dela hiru urte inguru. Koadrila hortako zortzi lagunek herritarren zerbitzurako beste pauso bat ematea erabaki zuten, eta ehun orduko ikastaroa eta Iruñeko osasun zentroetan hainbat guardia egindakoan bates zibileko taldea sortu zuten. Goizuetar hauen jarrera ikusirik, ederki aski hornitutako anbulantzia (guztira ia 14 milioi balio duena) bidali zuen herrira Nafarroako Gobernuak joan den urteko azaroan. Aipatu beharrekoa da, oraindik urtea bete ez duenean, ia berrogei irteera egin dituela anbulantzia honek, gehienak Goizuetako larrialdiekin eta bakar batzuk Arano eta Leitzakoekin.

Herritar guzien mirespena badu dagoeneko, jakina, gazte talde honek, baina Angelek, Joxe Ramonek, Mirenek, Mari Joxek, Iñigok, Ibonek, Asierrek eta Luixek zerbait gehiago eskatzen dute, bolondresen taldea haunditzea, alegia.

Gutxienez bi astetik behin, batzuk astelehenetik ostiralera eta besteak asteburuan, gau eta egun goardia egin beharrean aurkitzen da aipatutako zortzikotea herritarrok 24 orduz babesturik egon gaitezen. Ez dago esan beharrik, noski, taldea zabalduz gero bakanago zintzilikatuko luketela gerrian *buscapersonas* delako tresna. Eta hori, zalantzarik gabe, asko estimatuko lukete. Hauxe da eskatzen dutena. Beraiek diotenez, jasotzen den saria ikaragarria da: herritarrei laguntzeak –batzutan bizia salbatu arte– ematen duen poza.

## ARESO

# Eluseder mendiko antena tokiz aldatu dute ehiza garaian

Ipar Doinua abesbatza igandean ariko da



Artxiboa
**Eskolako umeak Donostiara joan ziren urriaren 18an, Miramongo Kutxaespazio Zientzia Museora. Txikiek Txikiklik tailerra ikusi zuten eta haundiek Eguzki Sistema tailerra. Denak elkarrekin bisita orokorra egin zuten.**

Juana Mari SAIZAR

Telefono mugikorrerako antenako poste bat Eluseder mendian jarria dago. Orain, ehiza denboraldiak irauten duen bi hilabetetan, tokiz aldatu dute, ehiza egitea galerazten baitzuen. Udalak adierazi duenez, posteak jartzeko beste eskariak izan omen dituzte. Baina badirudi araudia aldatu dela eta denak elkarren ondoan jarri behar direla. Hori eta beste gauzak berrikusten ari dira baimena eman aurretik. Poste hauen alokairua 300.000 pezetako diru sarrera garbia da Udalarentzat.

### *Udazkeneko Bira*

Nafarroako Gobernuak urtero antolatzen duen Udazkeneko Biraren barruan, Ipar Doinua Abesbatza etorriko da azaroaren 4ean, goizeko 11,30etan elizara.

### *Dantza talde txikia*

Dantza talde txikia, joan den ostiralean, urriak 26, hasiko da berriro ikasten. Aurten zortzikotea ariko da irakasle berriarekin.

LEITZA

# Elkartasunezko janariak sahararrentzat

## Honez gero Aljeriako kanpamenduetako bidean dira jaki kaxak

Mikel ILLARREGI

Izugarrizko arrakasta izan du errefuxiatu sahararren kanpamendueterako janaria biltzeko eginiko kanpainak. Urrian burutu den ekimen honek, esan bezala, uste baino lorpen handiagoak izan ditu eta ondorioz, kamioi bat ederki bete ahal izan zen azken egunean. Nafarroan ez ezik beste erkidegotan ere antolatu da, baina hemengoari dagokionez, mendialdeko herriek bat egin dute hau aurrera ateratzeko. Koordinatzaile lanetan aritu den Lurdes Balantzategik esaten zuen bezala, «*nazioarteko erakundeek laguntza %25ean jaitsi dutenean nahitaezkoa zen horrelako zerbait abian jartzea. Honetarako hamarren bat lagun aritu gara eta leitzarrek emandako erantzunaz oso pozik gaude*».

Ez da nolanahikoa, ez. Herrian, 2.000 kilotik gora bildu baita. Bildutakoaren artean, ekosariak, arroza, pasta, azukrea, sardina eta atuna latak. Orain Nafarroako guztia bildu ondoren, hamar bolondresek bidaia eginen dute Alakantera eta bertatik ikuskatuko dute, jasotako guztia behar bezala irits dadin. Ondoren, «ferry» batean sartu eta Aljerian dagoen Tindoufeko errefuxiatu sahararren kanpamendura ailegaraziko dute.

Leitzako herriak azken urte hauetan bertatik ezagutu ahal izan du hango egoera, saharar gaztetxoak etxetara ekarriz eta hori izan daiteke arrazoi nagusietako bat elkartasun keinu hau hain baikor eta ongi ateratzeko.

Antolatzaileen aldetik, herriari eta udalari eskerrak eman eta beraiek ihardun ezberdinekin jarraituko dutela ziurtatu dute, «*ea jendeak orain bezala, bestelakoetan ere, ilusio berdinarekin erantzuten duen*».



Mikel ILLARREGI

**Jende asko bildu zen azkeneko lanetarako. Kaxatan sartu eta aurrera!**

### *Euroari buruzko jardunaldiak eta joskintza eta aerobic ikastaroak*

Azaroaren 6an, Izar-Berri elkarteak euroari buruzko jardunaldiak antolatu ditu. Ondoren, 7an hasita, joskintza ikastaroari hasera emanen diote: gurutze puntua, bainika, bordadoak... Bi hilabetekoa izanen da eta zortzi pertsonako taldeak osatuko dira, astean bi orduz arituz. Irakaslea Esperanza Saquet izanen da. Bazkideek 4.000 eta besteek 5.600 pezeta ordaindu beharko dute. Izenak astearte eta ostegunetan, 4:30etatik 6:30etara elkartean.

Aurten ere, Denok Bat guraso elkarteak Aerobic eta keramika ikastaroak antolatu ditu.

FLASH



### *Joseba Azpiroz*

Bederatzi urtez TTIPI-TTAPAN hamabostero idazteko ardura bete ondoren, atseden pixka bat hartzea erabaki du Joseba Azpirozek. Eskerrak eta on egin! Orain, Mikel Illarregik beteko du lan hori.

### *UPNko zinegotzi berria*

Urriaren 5ean, Hauteskunde Batzordeak Silvestre Zubiturren kredentzialak bidali zituen. Hau irakurtzen duzunerako, lehen Jose Javier Múgica zenak betetzen zuen eserlekua beteko du orain, lehendik ere zinegotzi izaniko honek.

### *2.935 bizilagun*

INEk azaldu duenez, urten honen hasieran (2001-01-01) udaletxeko erroldan 2.935 biztanle agertzen ziren. Hau behera doa!

### *Posta-kutxa berria*

Posta bulegoa aldatzearekin batera, posta-kutxa berria jarri dute. Denok begiratzen dute, egia esan horrelakoak ez dira oso eder izaten... baina hau lehenbizikoa baita.

**BULDAIN**
**agentzia inmobiliarioa**
Lurrabat gaiztan bulegoa irekia
Amazabal 37 (eskola ondoan) • LEITZA (Nafarroa)
✆ 948 510534 / 649 476615

QUIROMASAJE
Pili Villabona Zaralegui
Elbarren 36-3.B • LEITZA • ✆ 948 510694

ttipi ttapa
✆ 948 63 11 88

DONEZTEBEKO

# FERIAK

AZAROAREN 16AN



# Aziendak goizean eta kirolak bazkalondoan

- Lizaso eta Peñagarikano bertsolariak ariko dira eguerdian
- Mindegiari omenaldia eta Nafarroa-Gipuzkoa desafioa aizkoran

San Martin ondoko asteko ortzirala, azaroaren 16a, egun seinalatua izanen da Doneztebe eta Malerrekako bizilagunentzat. Azienda feria eguna ailegatu da. Goizean, beti bezala, aziendak ikusi eta ferianteen postuen barna harat-honat ibiltzeko modua izanen da. Eguerdian, Xebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariek alaituko dute bazkalaurreko giroa. Bazkal ondotik, berriz, herri kirola ikusteko aukera izanen da, aspaldiko ohiturari eutsiz. Aurten, Euskal Herriko gazteen txapelketa jokatuko da: Jon Rekondo leitzarra eta Beintza-Labaiengo Javier Mindegia dira eskualdeko ordezkariak. Gero, Mikel Mindegiari omenaldia eskainiko zaio. Hori gutti balitz, Nafarroa eta Gipuzkoako aizkolarien arteko desafioa izanen da. Txapelketak akitu ondotik sasoi onenean etorriko dira Nazabal, Larretxea eta Barberena nafarrak eta Olasagasi, Peñagarikano eta Arria V. gipuzkoarrak.



**ETXEBERRIA**

**Herria**
ITUREN
(Aurtiz auzoa)

**Nagusia**
Martintxo
Mindegia

**Azienda kopurua**
27 esne-behi eta
130 ardi.

**Kuota**
150.000 litro

**ETXEBERRIA** *Aurtiz*

# «Nekazarien biziak honela segitzen badu gazteak ez dira hasiko»

Esnetako 27 behi eta 130 bat ardi dituzte Aurtizko Etxeberria baserrian. Beraz, Martintxo Mindegia nagusiak erran digunez, denaren beharra dute azienda guzi hauek bazkatzeko: *«Etxeko belarrak egiten ditugu, pentsua pixka bat ematen diogu eta baita arto duldatzea ere. Artoa normalean Frantziatik ekarritakoa da. Silo bolak egiteko ohitura dugu»*.

Orokorrean, etxeko tresneria erabiltzen dute Etxeberrian. Lehen belarrarekin fardoak egiten zituzten, baina gaur egungo bolak erosoagoak direla uste du Mindegiak. *«Lehenagoko belar fardoekin konparatuz egun bakar batean lan handiagoa egiten dugu orain, lana lasterrago bukatzen dugu. Siloak garbitzeko tresnak alkilatzen ditut. Iratzeak eta belarrak etxeko tresneriarekin egiten ditut. Ez dut inguruko baserrietakoekin tresnak konpartitzen. Ditudanak neureak ditut, eta besteak alkilatzen ditut»*.

Behi-esnearen prezioa zerbait goiti egin du aurten: *«Iparlateri saltzen diot eta prezioaren alde-*

Xaverna
Dasta itzazu gure pintxoak
Parrokia 21 • DONEZTEBE

Amaya
• Lurrindegia •
• Apaindegia •
• Oparidenda •
• Solarium bertikala
• Bitxidenda eta osagarriak
• Estetika:
Aurpegiko tratamenduak, Peeling, oxigenazioa
• Ile-kentze elektrikoa edo argizariarekin
• Makilaia
Lancaster
zure oparia
Ameztia karrika z/g • © 948 450163 • DONEZTEBE

BIXEN
ostatua
Bokadillo eta pintxo goxoak
© 948 450383
Ameztia 6
DONEZTEBE

*ak, joan den urtetik pixko bat goratu egin da, 49 pezeta inguru ari dira pagatzen. Gaizki ez dago, okerrago ere egon da. Kalidadearen aldetik kontrol zorrotzak pasatu behar ditugu».*

40 urte ditu Martintxok eta jubilatu arte baserrian segituko duela uste du. Ez du seme alabarik eta etorkizunean ez daki norbaitek bere lanarekin jarraitu nahiko duen, nekazari eta abeltzainen egoera, orokorrean, ez baita batere ona. *«Baserriaren bizian nahiko estutzen ari dira gauzak. Gero eta papeleo gehiago eskatzen digute eta ez da batere errexa baserritik bizia ateratzea. Honelako martxan segitzen badu baserriek ez dute aunitz iraunen. Egia da lehenago egin behar zen lanarekin konparatuz aisago dela orain, eskulan gutiago da eta lana aisago egiten da, baina asteburuan, beti bezala, lanean aritu behar da. Nekazarien bizia martxa honetan jarraitzen badu ez dut uste gazteak baserrian hasiko direnik. Zaila da segitzea».*



RAFAEL GOÑI

**Hogeita zazpi esne-behi dituzte Etxeberriako granjan.**

### Gero eta lan gehiago baserritik bizia ateratzeko

Gainera, baserritik bizia ateratzeko gero eta azienda gehiago behar dira eta, ondorioz, lan gehiago egin behar izaten da, Martintxok erran digunez. *«Gaur egun bortz edo zortzi behiekin ezinezkoa da bizia ateratzea, halere behi aunitz izateak lan aunitz ekartzen du. Pena handia ematen dit baserrietan behiak kentzen ari direla ikusita. Niri azienden lanetan anaia libre delarik laguntzen nau bertzela bakarrik egiten dut dena».*

Bildotsak haragitarako eta ardi-esnea prezio nahiko onean saltzen du Mindegiak. Artilea, aldiz, kasik debalde ematen dela onartu du muttittarrak. *«Ardiaren ilea saldu edo hobe erran eman egiten dugu, ez baitute deus ordaintzen. Arkume eta ardi esnearekin pixka bat ateratzen dut. Ardiaren esnea Enaquesa enpresak erosten dit».*


ALTXUNEA ERRETEGIA



ITUREN
Feria onak pasatu!
Tfnoa: 948 450 410

CASA COSTIZ
zapatadenda
papertegia
estankoa
Tel eta Faxa: 948 450 289
e-posta: costiz@telelino.es
Parrokia 17 • DONEZTEBE
Gizaseme, emakume eta baurrendako oinetako aukera zabala

Maderas Zabala, S. A.
Kortinarako sistemak
Bertako eta inportazioko zurak
Oihan esplotazioak
Zerrategia eta sekaderoak
Tel.: 948 450135 • 948 450632
Faxa: 948 450498 • DONEZTEBE

SALDIAS
HARATEGIA
Bertako haragi frexkoetan espezializatuak
Karrika Nagusia 21
✆ 948 450191
DONEZTEBE

JUAN J. PIKABEA
Lois
DIESEL
ARROPA KONFEKZIOAK
GIZONENDAKO JOSTUNGINTZA
EGINDAKO TRAJETAN AUKERA ZABALA
GATZA BAKEROAK 64 neurria bitarte
ATORRAK 52 neurria bitarte
AMEZTIA Z/G, TFNOA: 948 451 670 • DONEZTEBE



1940 urtetik
Lácar Etxea
C/ Sta. Lucía, 1 • 31740 Doneztebe
• Emakume eta gizonendako arropa
• Laneko arropa
• Mertzeria
• Etxe barnekoak: Bisilloak, kortinak, edredoi nordikoak, maindireak, toaiak, alfonbrak...
• MOSHY almohadak

**ZURGINENEA** *Beintza-Labaien*

# «Azienda klase ezberdinak izatea nahiago dut, lehengo baserriaren ohitura hori da»

**ZURGINENEA**

**Herria**
BEINTZA

**Nagusia**
Miguel Saldías

**Azienda kopurua**
260 ardi, esnetako 40 behi eta miga eta 80 behor.

**Kuota**
140.000 litro



**Zaldiak eta esnetako behiak, Zurgineneakoek Beintzan duten nabean.**

Beintzako Zurginenean 260 ardi, esnetako behi pintto eta migen artean 40 bat buru eta 80 behor dituzte. Miguel Saldias nagusiaren erranetan, hori da hemengo ohitura, azienda ezberdinak haztea baserri berean. «*Lehengo baserriak horrela ziren. Jende asko sonatzen dut esanez, 'ez al huen hobe beste hamar edo hogei behi paratu eta erabat horretan aritu!'. Bai, diot, errentagarriagoa izanen da seguraski, baina nere gustoa beste aldera da. Hiru azienda mota ezberdin izatea nahiago dut, lana gehiago ekartzen du, baina horretara ohituak gaude. Lehengo ohitura ere horrela zen, eta hortara, sektore batean krisi larriren bat gertatuz gero, besteekin segitzen ahal dugu*».

Behiak eta behor asko nabean izaten dituzte uda inguruan eta ardiak berriz, propio errentan hartutako borderan.

Herriko lur komunaletaz ere baliatzen da Miguel Saldias uda aldean, baina negu partean Iruñaaldera eramaten ditu behorrak. «*Neguan drua pa-*

ttipi ttapa
✆ 948 63 11 88

AROZENA ostatua
Gosariak eta bazkariak
Eguzki Eder 3, Tfnoa: 948 450 443 - DONEZTEBE

Angie
Elizagibela, 7 Behea
✆ 948 45 01 02
DONEZTEBE
Ingelesa ikasteko modurik errax eta atseginena
*Ongi pasa feriak!*

Esarte
AITZINETIK PRESTATUTAKO JANARIAK
*Orain Bera, Lesaka, Etxalar eta Doneztebeko janaridendetan*
*KONGELATUAK → • Albondigak*
*• Urdaiazpiko, oilasko, piper eta arraultze kroketak*
Jaime Urrutia 35 - ✆ 948 58 01 28 • ELIZONDO

ALBAITERITZA ZENTRU TEKNIKOA
Juan Ramon Ostiz
Karrika Nagusia 1, ✆ 948 45 05 91 - DONEZTEBE



gazte mendi bat hartzen dut udaldean, kamioian sartu eta eramaten ditut behorrak. Bost edo sei urtedako hartzen dira lur erema horiek, enkantean». Beheindako, berriz, CAR belatetik belar sikua ekartzen du neguan. «Ardendako etxeko belagietatik belar idorra egiten dugu, baina azienda guziendako ezinezkoa da. Andrea eta biek gara, semeak gazteskoak dira oraindik. Aita eta amak ere eskua botatzen dute, baina 81 urte dituzte».

Hemen inguruan baserritar gutti aritzen da behorrak hazten, Zurginenean beti izan dituzte. «Gehien bat haragitako hazten dira. Eskin guzietan gustokoa da haragi hori, baina inguru honetan gutti kontsumitzen da. Duela hamalau bat urte arte, oraindik bazuen hemen merka zaldi haragiak, baina peste espaina eriasuna atera zen eta jendeak ohitura galdu zuen. Merkatua larretik beheiti joan zen. Nik beti mantendu izan ditut behorrak, gustokoak ditudalako. Orain dela urte batzuk hasi zen pixko bat berpizten, eta batez ere Italiara esportatzen da. Prezioak goiti egin du eta estimazioa ere hartzen joan da. Orain momentuan Italiara ateratzen da gehiena, gero nork daki, ignal tas! geldituko da eta dena sobrante!». Inguru honetan zaldi haragia kontsumitzeko moda hastea zailagoa ikusten du Zurgineneako nagusiak. «Joan den neguan hasi zen pixko bat, behi eroen asuntoarekin, baina berriz ere beheiti egin du».

### Behorrak saltzeko eta erosteko feriaz feria

Behorrak saltzeko eta erosteko Miguel Saldias feriaz feria ibiltzen da. Hemen ingurukoetan ez da salerosketa handirik egiten bere ustez. Hortaz, kanpora jotzen du. «Haundixkoena San Fermínetakoa da, Iruñean, gero San Miguel, joan den astean, urriaren 25ean, Ta-






























fallan izan nintzen... Elizondo eta Donezteben ez da mugimendurik, jendea bai asko, baina azienda mugimendu batere ez».

Gainera, balentzianoren bat edo bertze etxera etortzen zaio behor bila, adiskideak baititu inguru hartan. «Espainian egiten den salmenta gehiena Valentzia eta Castellon aldera egiten da. Italiara eramaten den azienda oso ona izaten da. Normala eta korrientea dena hertan enplegatzen da, ez da kanpora eramaten».

**«Aziendatik bizitzeko sosa behar da»**

Ardi-esnea Enaquesara saltzen dute eta bildotsak, zuzenean Iruritako hiltegira. Behi-esnea berriz Danoneri saltzen dio. «Primarekin eta litroa 60 bat pezetatan dago, baina deskuentoa egiteko ere gutxi aski dute. Kalidadea eta bakterologia ere kontuan hartzen dute, batzuetan prezio horretatik pasatzen da eta bertzeetan gutixeago». Azkeneko urtean prezioak goiti egin du baina Miguel Saldiasen ustez, ez aski. «Gastu haundiak daude eta azienda hutsetik bizitzeko sosa asko behar da eskuetan. Azienda batek huts egiten badu zu zara arduraduna, katxarro bat aberiatzen bada zu zara arduraduna eta bazka behar baduzu zeonek erosi behar duzu. Erresponsabilidade haundia da norberaren gainean. Probatu ez duenari ez zaio iruditzen. Animaliak ez dauka balorerik».

Beraz, abeltzaintzaren etorkizuna ez da argia Zurgineneako nagusiarendako. Kooperatibak sortzea ere ez du gogoko. «Bizimodu oso zaila heldu zaigu eta ez naiz behin ere kooperatiben aldekoa izan. Nik nahiago dut neonek sufritu eta neonek irabazi edo neonek galdu. Ultzama aldean badira kooperatibak, Oskotzekoa adibidez izugarri polita da, zoragarria. Baina dagoeneko ez da kooperatiba bat, enpresa bat baizik. Lehengo zaharrak jubilatuta, ez da nagusirik. Martxatzen duen bitartean martxatzeko da, baina galtzen hasten denean itxi eta akabo! Norbera bere baserriarekin ari denean, aurrera segitu behar du nola edo hala».





MARTIN
HARATEGIA
*Bertako aretxiak*
Parrokia 1
✆ 948 450160
DONEZTEBE

MENDI TXURI
ALMACENES




- *Etxegintza eta burdindegi materialak*
- *Zeramikak* (Venis, Porcelanosa, Aparaci, Porcelanato)
- *Teila frantsesak* (Guiraud, TBF)
- *Egurrezko sukaldeak*
- *Tximiniak*

✆ 948 450305 / 948 450068
**DONEZTEBE**




# Kontxa gasolindegia

## Kalefakzioa • Traktoreak

Deitu eta egun berean edo biharamonean etxera serfitzen dugu

Garraio enpresetan tankeak jartzen ditugu

# Kontxa kafetegia

**Bokadiloak eta platerak**
**Ogi egin berria**

*Ongi pasa feriak!*



Tel: 948 450272 • Faxa: 948 450810 • **DONEZTEBE**


Eder Ederki
Tailerrak
Citroen agente ofiziala
Peugeot agente ofiziala
Grua zerbitzua 24 ordutan
Mekanika • Elektrizidadea • Txapa • Pintura
Hidraulikan espezialistak
Donezteben
Leitzako errepidea - Tfnoa: 948 45 05 25


Presio bidezko garbiketa:
DONEZTEBE
GASOLINDEGIA
Barnealdeko garbiketa:
AVIA
TIENDA - DENDA
Auto-garbitzaile automatikoa

## BAZTAN




**Lekarozko plazaren itxura arras aldatu da bertan zegoen etxe zaharra bota ondotik. Lekarozkoek ere ez zuten uste etxeak hainbertze bista kenduko zuenik. Herrian aldaketarekin kontent dira.**

# Elizondoko eskolaren hutsak ez dira larriak

S. Francisco Javier Ikastetxeko zuzendaria kexu da eman den informazioarengatik

**Rakel GOÑI**

Irailaren 28ko Baztango udal batzarrean San Francisco Javier ikastetxean, Osasun Zerbitzuak aurkitu zituen oker batzuk aipatu ziren. Bertzeak bertze jolastokia asfaltatu beharra, ateak irekitzeko zentzua ez zela egokiena edo alarmaren sistema ez zela autonomoa eta hau aldatzea beharrezkoa zela. Udalaren erabakia, huts hauek konpontzeko eskatzea izan zen. Informazioa prentsan agertu zenean behar zuen baino garrantzi gehiago eman diotela uste du San Francisco Javier ikastetxeko zuzendariak. Inspekzioa egin zenean informean ez zen okerrik isladatu. Informea egitearen arduradunak, oharren bat jarri nahi zuten galdetu zien ikastetxeko arduradunei, hauek egoera probextu zuten ikastetxeak zituen behar batzuk konpontzea eskatzeko. Bertzalde aipatutako hutsak ez direla "larriak", zenbait medioetan aipatu den bezala, zehaztu nahi izan dute. Gurasoen artean informazioak kezka sortu omen du eta dei aunitz jasotzen ari dira zer gertatzen ari den jakin nahirik. Horregatik lasaitasun mezua bidali nahi da eskola publikotik arazo larririk ez dagoela aipatuz.



**S. Fco Javier Ikastetxeak 3 urtetako haurrentzat D ereduan gela berria ireki behar izan du aurten ikasle kopurua handitu delako.**

### *Har beltzak belaietan*

Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko belaietan, belarra jaten duen har beltzaren izurritea somatu dute. Euririk egiten ez duen urtean agertu eta belaiak xehetzen omen dituzte.

## FLASH

### *Herriendako dirulaguntza handitu da*

Baztango Udalak herriei urtero ematen dien dirulaguntza %5ean igo da. Denetara 12 milioi pasa banatuko dira 15 herrien artean, duten biztanleen arabera. Orokorrean laguntza hauek bestak antolatzeko ematen dira, baina herri aunitzek diru puska bat bertze gauzetan inbertitzeko erabiltzen dute. Dirulaguntza hau eskaxa da herriendako, eta alkate juradoek eskatu dute guttienez Bailarako aurrekontuen %5a herriendako izatea (orain %0,7a jasotzen dute). Eskaera hau onartuko balitz herrien artean 85 milioi pezeta banatuko lirateke. Momentuz ilusioa bertzerik ez da eta ez dirudi Udalak proposamena onartuko duenik. Adibide bezala Elizondoko herriak aurten 1.363.000 pezeta jasotzen baditu igoera onartuz gero 9.600.000 izanen lirateke. Aldea nabaria dela argi dago.

### *Bidasoa errekaren eguna*

Baztanen ere azaroaren 10ean Bidasoa Errekaren eguna ospatuko da. Herri aunitzetan erreka garbitzeko taldeak antolatu dira.

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
✆ 948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 •
Ameztialde 3B • ELBETE

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa
• SUKALDE MOBLEAK
• BAINU MOBLEAK
• MANPARAK
Zaldubi Poligonoa • ✆ 948 380 562 IRURITA



JATETXEA
✆ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 948 580313
ELIZONDO

BAZTAN

# Folk Ametsetan zikloa azaroan Elizondora iritsiko da

## Hiru musika emanaldi izanen dira azaroaren 4, 11 eta 18an

Rakel GOÑI

Urtero bezalatsu Folk Ametsetan zikloa Elizondora iritsiko da. Hiru aktuazio izanen dira denetara. Azaroaren 4an, igandea, Danburia taldeak iluntzeko 8etan joko du Arizkunenean. Danburia musika tresna klasikoen taldea da. Pirinioetan dagoen herri musikaren berreskuratzea da bere helburua. Musika tresna diferenteak jotzen dituzte, klasikoak diren bibolina edo biolontxeloa, eta herrikoiago diren bandurria edo hiru zuloetako flauta. Azaroaren 11n, igandea, Arizkunenea Kultur Etxean iluntzeko 8etan Wafer S. Gribil & Cherno More abeslariak arituko dira. Munduko herrialdee ezberdinetatik datozen gero eta musikari gehiago biltzen dira Madrilen, bakoitzak landutako musika besteak landutakoarekin gurutzatuz. Wafer S. Gibril, Jartumgo sudaniarra eta Sofiako Cherno Moré musikari bulgariarak, bat egin dute. Wafer-ek biola, akordeoia eta laudea jotzen ditu. Radio Tarifa, Medina Azahara, Eduardo Paniaque eta beste hainbat talderekin bateria jotzen lan egin du. Bere oinarria arabiar musika; flamenkoa, Indiako musika edo bestelako musika motekin nahastea da. Azaroaren 18an, igandea baita ere. Kantiruki taldea, (Iparraldeko ahotsez osatutakoa) kantari arituko da Arizkunenea Kultur Exean Iluntzeko 8etan.



Kantiruki iparraldeko taldea azaroaren 18an arituko da Elizondon Arizkunenea Kultur Etxean.

### *Azpilkuetako errepidea konpontzea eskatu dute*

Azpilkuetako bidean zegoen zabortegia ixteko lanak akitu zirenean, errepidea egoera tamalgarrian gelditu zen. Hori dela eta Baztango Udalak, Navarra de Medio Ambiente Industrial enpresari bidea zegoen bezala utzi dezala eskatu dio. Zabortegiko lanak aipatutako enpresak egin zituen eta errepidea moldatzen ez badu udalak bere kargura eginen ditu obrak. Aipatutako errepideak N121ean Bergarako auzoan du sarrera.

FLASH

### *Pedro Mari Esarterekin solasaldia*

Baztandarren Biltzarra elkarteak eta Jo ala Jo taldeak, Pedro Mari Esarte historialari elizondarrarekin solasaldia antolatu dute. Esarteren "Navarra 1512-1530" liburua hizpide hartuko da solasaldia abiatzeko. Hitzordua azaroaren 9an, ortziralean da, arratsaldeko 7:30etan Arizkunenea Kultur Etxean.

### *Jose Ramon Sanchez karikaturgilearen erakusketa*

Baztango Udalak antolatuta, "Don Quijote de la Mancha" izeneko erakusketa azaroaren 12a bitarte egonen da zabalik Elizondon Arizkunenea kultur etxean. Jose Ramon Sanchez karikaturgilearen lana aurkezten da bertan. Santanderren jaioa, publizitatean, marrazki bizidunak egiten eta haurrendako liburuen irudiak marrazten aritu da Sanchez. Ilustrazio saririk garrantzitsuenak jaso ditu eta denetara 120 liburu baino gehiago irudiztatu ditu. Erakusketa ikusteko ordutegia: lanegunetan 18:30etatik 20:30etara, jai egunetan itxita egonen da.

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago, 88 ✆ 948 580939
ELIZONDO
UDAZKENEKO ARROPAK
Jertseak, gonak, galtzak, trajeak, soinekoak eta osagarriak

Okindegia Jatetxea
Uxoa
☛ Okindegian
• Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
☛ Jatetxean
• Menua eta karta (asteburuetan)
• Espezialitate parrilan erretako jakietan

Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean errea. Goxo-goxoa!

SARA

# Sarako Indarra herri kirol taldeak berriz hasteko xedea du

## Frederik Berruet izanen da Euskal Herriko Kasetan herriko berriemaile

**Aña Mari eta Fred**

Azken aldian geldirik zegoen Sarako Indarra taldeak berriz hasteko xedea du. Alabainan, arduradunek uste dute Sarak bere herri-kirol taldea behar duela, eta *«giro goxoa eta talde lana»* lagun, ospakizunetan eta txapelketetan parte hartzeko gogoa agertu dute. Entrenamenduak astearte eta ortziraletan iraganen dira lehen Lurberri zen tokian. Tresneria berezia muntatua badute ere hortarako. Xehetasun gehiagorentzat, deit Henri Zubiri (06.22.86.57.50) edo Joseph Lamothe (06.09.40.45.43).



Mari Paule PRADERE

**Jostalekua eta aparkalekua egin dute Omordiaren behereko aldean. Denetara 55.427 libera gosta da lan hau egitea.**

### *Lehen garaipena errugbian*

Gure errugbi taldeak denboraldi huntako lehen garaipena erdietsi du joan den urriaren 14an Xiberuan, Mendikotari 3 eta 23 irabaziz. Bere aldetik, bigarren taldea ere errex nagusitu da. Bainan azken emaitzak onak izanik ere, Sarako Izarrako zuzendaritzak Gimenez entrenatzailea kargutik kentzea erabaki du desadostasun arazo batzuengatik. Bertze trebatzaile bat atxeman artean, jokalari batzuk hartuko dute ardura hori. Hona ondoko neurketen egitaraua: azaroaren 4an, Sara-Urruña (Animanian) eta azaroaren 11n, Kanbo-Sara.

### *Gripearen kontra*

Azilaren 5ean, astelehenarekin, goizeko 10etatik 11ak arte gripearen kontrako xertoa eginen da Herriko Etxean. Oraino jende frango hiltzen da eritasun hunen ondorioz eta beraz, 60 urte baino gehiagoko saratarrak gomitatuak dire Erretrata Kutxak igorritako agiriarekin eta erremedioarekin. Aurten, Garat medikua da xertatzailea.

### *Atxikimendua erakutsiz*

Urriaren 14an euskal errefuxiatu eta preso politikoen aldeko martxa antolatu zuten Senpere, Azkaine, Bera eta Sarako sustengu komiteek. Jende andana ederra Larrunera upatu zen eguraldi xoragarriak lagunduz. Azilaren 18an elkartasun eguna iraganen da Makean.

### *Euroan usatuz*

Euroari oraindanik usatzeko, permanentziak antolatuak dira Herriko Etxean. Azaroaren 16an eta abenduaren 14an, arratsaldeko 4:30etatik 6ak arte, Agir elkarteko Der Khatchadourian jauna hor izanen dugu moneta berriaz nahi ditugun xehetasun guzien emateko.

### *Ttipi-ttapa Lastirin*

Herriko Etxeko Edantegia hetsia izanen da azilaren 10etik goiti. Abenduaren 4an ateak berritz zabalduko dituzte, aste egunetan 13:30etatik goiti eta aste hondarretan egun osoz. Ondoko bi TTIPI-TTAPAK Lastiri ostatuan eskuratzen ahalko dira.

HORTZ KLINIKA
Dr Guy Cadillon
Dentista espezialidade guzietarako

HORTZ ESTETIKA
IMPLANTOLOGIA 20 urteko esperientzia • ORTODONTZIA
Aduana k., 2 • IRUN • Tel. 943 619848

ZUGARRAMURDI

# Ospitalea berritzeko proiektua eginen da

**Margari eta Koro**

Fundazione baten eskutan zegoen Ospitalea duela urte pare batez. Herriko Etxeak bereganatzea lortu zuen, bainan orain lan gogorena falta da: behar den bezala egokitzea. Egoera arras txarrean dago (teilatua itatxura aunitzekin eta leiho gehienak galduak). Lehenbiziko pausua eman da eta horrekin Herriko Etxeak zaharberritze proiektua erredaktatzeko lanak aurkezteko epea zabaldu du. Proposamenen irekitzea urriaren 29an izan da eta hasierako aurrekontua 4.973.000 pezetakoa da.

### *Harra hedatu da belategietan*

Azkeneko urte haueitan belategietan hondamenak egiten ari den har gaitzak, udazken honetan sekulako indarra hartu du. Eguraldi epel eta idorrarekin harra gustura bizi da eta udazken honetan egundaino ikusi ez dena ezagutzen ari gara, itsuski sartu baita usaian sartzen ez den tokitan ere. Iparraldetik heldu da eta diote han barna paretetatik goiti igaten ere ikusi dutela. Laborariak saiatzen ari dira gaitza tokitzen tratamentua botaz, bainan hala ere berriz belar-hazia bota behar izan den tokiak izan dira, harrak zainetatik kasatuak zituelako eta lur beltz-beltzean geldituak zirelako belategiak.

AZKAIN

# Aratz Gomez auziperatua izanen da abendoaren 3an Madrilen

## Azaroaren 16an, gastuak arintzeko elkarretaratzea eginen da herrian

**Ihintza, Angela eta Eneko**

Badu orai 23 hilabete Aratz Gomez (Azkaindarra) presondegian ezarri zutela Arkaitz Saezekin (Hiriburutarra) Alcala Mecon eta Valdemoron. Ez ziren oraino auziperatuak izan. Urriaren 10ean Audiencia Nazionalean pasatu ziren biak. Eta abendoaren 3an, eginen da epaiketa Madrilgo Audiencia nazionalean. Gastuak arintzeko eta atxilotzearen bigarren urtemuga delako, azaroaren 16an antolatua izanen da elkarretaratze bat eta zintzur bustitze bat Azkainen, "Orduan!" eta "Hiriburuz" sustengu komiteen izenean. Auzirat joateko autobus bat abiatuko da Hendaiatik.



ARTXIBOKOA

**Aratz Gomezen auzirat joateko autobusa abiatuko da Hendaiatik.**

### *Gemuku Interneten*

Gemuku elkarteak bere webgunea sortu du: www.gemuku.ht.st du helbidea. Webgune hori joan den udatik atxematen ahal da internet sarean. Orai osoki eraikia dela erraten ahal da. Barnean Gemukuren urteko aktibitateak, animazioak eta kezkak ikusten ahal dira (kontzertuak, antzerki tailerrak, argazkiak, antzerki emanaldiak, gaztetxea, drogaren kontra egin ekitaldiak...).

Webgune aldakorra izanen da, orrialdeak gertakarien arabera aldatuko baitira, maiz errerberritua izanen da.




**Azkaingo Gazteen Elkarte Musikalak eta Kulturalak Internet-en duen orriaren ataria.**

FLASH

### *AEKko kurtsoak*

Ikasle kopuru ederra bildu du AEKko gau eskolak aurten Azkainen. Bazuen 5 urte ez zela kurtsorik antolatua izan gure herrian. Jean-michel Larroquet eta Mathilde Graçy izanen dira erakasleak. Astelehen eta asteazkenetan lehen maila, astearte eta ortzegunetan 2.maila eta mintza praktika asteartetan eginen da. Izen emaiteakn 1300 liberetan egiten dira (1000 langabetuentzat).

### *Antzerki kurtsoak*

Antzerki kurtsoak proposatuak izanen dira helduentzat, euskaraz. Christian Séné erakaslearekin eginen dira ortzegun arratsetan 8etatik goiti. Kurtso horiek deneri idekiak dira, euskara ez dakitenak edo gutti dakitenak ere gomitatuak dira. Hilabetero 100 libera ordaindu beharko da.

### *Ihauteriak*

Altxalili eta Gemuku elkarteek Ihauteriak prestatzen hasi dira. Aurten artxibaketa bat hasi nahi dute, lehengo ihauteriak hobeki ezagutzeko. Ihauteriei buruz argazkiak, testoak, liburuak edo orroitzapenak dituzten jendeak 05 59 54 06 20 telefonora deitu.

Maderas GOMEN



- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ✆ 948 580 645

BAZTAN FUNERARIA

TANATORIO ZERBITZUA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA

EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO

• ✆ 948 580373 • 608 776176

# EZKONTZAK

**Jacobo Reyero Catala** eta **Rosa Maria Arraztoa Etxenike**, Iruña eta Iruritakoa, urriaren 6an.

**Angel Maria Balda Jauregi** eta **Maria Elena Ezkurdia Arriada**, Narbarte eta Elizondokoa, urriaren 6an.

**Jose Javier Bengotxea Felipe** eta **Maroa Angeles Agerre Irigoien**, Erratzukoak, urriaren 6an.

**Juan Carlos Linares Fernandez** eta **Silvia Saldaña Vela**, Iruñekoak Iturenen, abuztuaren 31n.

**Iñaki Vian Perez** eta **Susana Alonso Garcia**, Irungoak Beran, urriaren 13an.

**Martin Etxeberria Balda** eta **Eider Sagastibeltza Sestorain**, Antsoain eta Leitzakoa, abuztuaren 4ean.

**FranciscoJavier Arregi Zabaleta** eta **Mª Aranzazu Barriola Billabona**, Leitzakoak, urriaren 6an.

**Miren Garbiñe Aleman Barriola** eta **Jose Julian Genua Rezola**, Leitzakoak, urriaren 13an.

**Ander Lasa Aranburu** eta **Maria Victoria Sagaseta Irigoien**, Narbartekoak, urriaren 20an.

**Jose Miguel Sarratea Oteiza** eta **Amaia Mayora Eratsun**, Gaztelukoak, irailaren 22an.

**Juan Martin Sarratea Goienetxe** eta **Ana Mari Amigorena Agesta**, Ziga eta Donamariakoa, urriaren 6an.

**Michel Valde** eta **Marie Hélène Jaurigeberri**, Sarakoak, urriaren 20an.



# JAIOTZAK

**Olaia Zaldain Bautista**, Elizondokoa, urriaren 3an.

**Josu Dagerre Martirena**, Elizondokoa, urriaren 3an.

**Markel Escagues Martiarena**, Berakoa, urriaren 11n.

**Olaia Pikabea Sainz**, Berakoa, urriaren 7an.

**Ihintza Zozaia Irazoki**, Zugarramurdin, urriaren 8an.

**Eider Hernandez Mariezkurrena**, Beintza-Labaiengoa, urriaren 4ean.

**Alaitz Irigoien Juanena**, Donamariakoa, abuztuaren 27an.

**Itziar Agirre Sagaseta**, Donamariakoa, urriaren 5ean.

**Lander Sagaseta Urrotz**, Donamariakoa, urriaren 16an.

**Noema Mihura**, Sarakoa, urriaren 8an.



# HERIOTZAK

**Joaquin Gimeno Martinez**, Iruñekoa Iruritan, urriaren 6an, 65 urte.

**Victoriana Makuso Telletxea**, Zubietakoa, urriaren 16an, 89 urte.

**Antonio Loiarte Loiarte**, Goizuetakoa, urriaren 21ean, 68 urte.

**Gregorio Irazoki Irazoki**, Etxalarkoa, urriaren 16an, 90 urte.

**Marie Léonie Lasaga**, Sarakoa, urriaren 16an, 90 urte.

**Maria Pilar Plaza Barredo**, Berakoa, urriaren 12an, 72 urte.

**Hilaria Bereau Pikabea**, Lesakakoa, urriaren 13an, 86 urte.

**Manuel Apeztegia Etxeberria**, Lesakakoa, urriaren 14an, 75 urte.

**Juan Dagerre Martinez**, Berakoa, urriaren 16an, 79 urte.

**Juana Elizagoien Larralde**, Lekarozkoa Lesakan, urriaren 17an, 79 urte.

SOULE
Hileta artea
✆ 948 453444•629 659583
ARIZKUN

Hannatche
Artisan
GOZOTEGIA
OKINDEGIA
S.A.R.L. ETCHE ONA
AZKAIN
Tél. 59 54 01 67



**Mª Angeles IÑARREA IBARRA**

1999/11/14

2. Urteurrenga Meza azaroaren 18an, 12:30etan Eratsungo elizan

*Hostoak arboletatik erortzen diren bezala*
*udazkeneko egun batean joan zinen*
*Geroztik gure bihotzak egunero*
*zure oroitzapenarekin betetzen dira.*

FAMILIA, Eratsunen 2001eko azaroan.

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
GESTIONES FUNEBRES DEL NORTE, S.L.
✆ 900 704704
FUNERARIA ZERBITZUAK
LESAKA-DONEZTEBE
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletik edozein herritara traslados
Tfnoa 948 637404 .................. LESAKA
Tfnoa 948 450475 .................. DONEZTEBE
Tfnoa 948 580971 .................. BAZTAN



Aitor AROTZENA

**Xabier MITXELENA** *Lesakako pilotaria*

## DATUAK...

- Urriaren 14an egin zuen profesionaletan debuta Xabi Mitxelena atzelari lesakarrak Naxeran. Badiola III.rekin batera 22-18 irabazi zion Chafee eta Gorka Retegiri.

- Panpi Ladutxe berak aholkatu dio ASPEri lesakarraren fitxaketa. 23 urte eginen ditu Mitxelenak abenduaren 29an.

- Afizionatuetan Altsasuko Pilota-Joko taldearekin aritzen zen. Kluben arteko Espainiako txapeldun eta Nafarroako txapeldun izan da binaka. Buruz buru Burlatako txapelketa ere irabazi du Xabier Mitxelenak.

# «Eskuin kolpearekin min egiten dut, baina huts sobera egiten dut oraindik»

Aitor AROTZENA

Profesionaletako lehen partidua irabazi arren, ez zela ongi aritu onartu du Xabier Mitxelena, ASPEko atzelari berriak: *«Partidu kaxkarra izan zen, ni nahiko urduri nengoen, baina halere irabazi genuen eta horrek balio du»*. Profesionaletako saltoak ez du ustekabean harrapatu lesakarra. *«Egia errateko espero nuen, aspaldian errana baitzidaten… baina eskuko minekin ibili naiz azken bi urteetan. Diren masajista guziekin izan naiz eta orain eskua ongi dut. Hagitz kontent nago»*. Ez da guttiagorako, izan ere, azken aldian pilota enpresek fitxaketa gutti egiten dituzte eta, gainera, koadroan duten pilotari batzuei ez diete kontratua berritzen. Mitxelenak, ordea, atautxi bikaina izan du. *«Nik Panpi Ladutxeren laguntza handia izan dut, aspaldian berekin nabil entrenatzen eta jende gaztea fitxatzea gustatzen zaio. Bera pilotari historikoa da eta nire fitxaketa gomendatzea gauza handia da. Aunitz lagundu dit, baita ASPEk ere, eta beregatik ez balitz igual ez zidaten fitxatuko»*.

**Almandoz eta Tabernaren kontra jokatzea gustatuko litzaidake. Orain aurrelaria falta zaio Lesakari: Irigoien eta Cerezo hagitz ongi ari dira eta igual abudo fitxatuko dituzte.**

### «Eskuko minekin egon naizenez, haseran proba eginen didate»

Dena den, haseran hiru hilabeterako proba gisara hartu dute. *«Eskuko min handiak izan ditudanez, hasieran proba egin nahi dute. Arazorik ez bada pare bat urterako kontratua egitea espero dut»*.

Eskuin kolpe ona duela uste du Mitxelenak. *«Eskuinarekin min egiten dut. Ezkerra ere nahiko polita daukat. Kanba gaineko mobilidadea eta pilota frontisean sartzea falta zait, oraindik huts aunitz egiten dut»*. Atzelari jotzailea denez, gaur egungo profesionaletan ere gisako pilotariak gustatzen zaizkio Xabierri: *«Aitzinean Mikel Goñi da gehien gustatzen zaidana. Gibelean berriz, Beloki, Ruiz eta Pascual. Azken honek kolpe handia egin du bi urtetan. Niri ere horrelako zerbait egitea gustatuko litzaidake»*. Herritar eta lagun dituen Almandoz eta Tabernaren kontra jokatzeak ere ilusio handia eginen lioke.

Arerioak ezkerra bilatzen badio izaten ditu kontuak Mitxelenak: *«Paretan itoitzen badizute, hortik ez da minik egiten. Juxtuan bazaude pilota serbitua uzten duzu»*.

Profesionaletan poliki-poliki joan nahi du lesakarrak: *«Goiti joaten banaiz ongi, baina bertan gelditzen banaiz ere, partidu aunitz jokatu nahi ditut»*. Buruz buru aritzeko gogoa du bereziki. *«Zaila izanen da afizionatuetan bezala txapelketak irabaztea. Bigarren mailakoan sartzea gustatuko litzaidake»*.

PILOTA

# Iruritak irabazi zion Arraiozi gazteen laxoa txapelketako finala

## Gaztetxoen eta helduen paxaka txapelketak hasiko dira azaroan

Joan den urtean bezalaxe, Irurita A eta Arraioz taldeek jokatu dute aurten ere Baztan-Bidasoako gaztetxoen laxoa txapelketako finala eta joan den urtean Oitzen gertatu zen bezalaxe, Iruritakoak suertatu dira aurten ere garaile. Pilarika egunean Arraiozko plazan jokatutako finala 9 eta 6 irabazi ondotik. Iruritarekin Gorka Urtasun, Borja Jaimerena, Jose Mari Salaburu eta Jagoba Ramos laukotea plazaratu zen. Arraiozekin, berriz, Xabier Bengoetxea, Xabier Mihura, Sergio Navarro eta Asier Zubigarai aritu ziren. Arraiozko plaza zabala eta jokatzeko zaila izan arren, partida polita eskaini zuten zortzi mutikoek. Haserako bi jokuak Iruritak egin ondotik, Arraioz 4-2 aitzinetik paratu zen. Launa berdindu ondotik, 4-7 aitzinetik izan ziren Iruritakoak. Arraiozek bertze bi joku egin zituen, baina azkenean Iruritakoak gailendu ziren.



TTIPI-TTAPA TB

**Iruritako Gorka Urtasunen sakeak min handia egin zuen finalean.**

Guzira bortz taldek jokatu dute aurtengo txapelketa, iaz baino bat gehiago. Josu Prim Laxoa Elkarteko antolatzaileak adierazi zigunez, haseran ligaxka jokatu zuten eta lau lehendabizikoen artean (Iruritako bi taldeak elkarren kontra eta Arraioz DoneztebeDoneztebeen kontra) jokatu ziren finalerdiak.

**Gaztetxoen Paxaka txapelketa Nafarroako Kirol Jokoetan**

Duela hiru urtera arte, gaztetxoen laxoa txapelketa akautzerakoan akautzen zen denboraldia Laxoa elkartearentzat. Baina orduan paxaka txapelketa antolatu zuten. Aurten hirugarren aldiz jokatuko da Baztan Bidasoako helduen paxaka txapelketa eta azaroan hasiko da. Baina horretaz gain, gaztetxoen paxaka txapelketa ere lehen aldiz jokatuko da eta, gainera, Nafarroako Kirol Jokoen barnean sartuko da.

FLASH

### *Nafarroako Judo txapelketa*

Erreka elkartearen 25. urteurreneko ekitaldien barnean, Nafarroako senior eta 23 urtez beheitiko judo txapelketa jokatu zen Doneztebeko kiroldegian urriaren 20an. Kategoria horretako neska eta mutilen txapelketen ondotik defentsa pertsonaleko erakustaldia ere egin zen.

### *Lau terdiko txapelketa*

Mikel Goñi, Aimar Olaizola eta Abel Barriola asteburu honetan hasiko dira lau terdiko pilota txapelketan. Oronoztarra, Otaegi eta Rairen arteko partiduaren irabazlearen kontra ariko da; goizuetarra, Esain eta Pascualen arteko irabazlearen kontra eta leitzarra, Joxe Julian Salaberria goizuetarra eta Berasaluze VIII.aren arteko partiduaren irabazlearen kontra. Iñaki Otxandorena igande honetan aritu da Zearraren kontra. Irabazi balu, Armendarizen kontra ariko da igandean.

MENDI DUATLOIA

# Pablo Arrastia Nafarroako txapeldun izan zen Gartzainen

## Mitxel Aginaga narbartearrak ez zuen parte hartu

Pilarika egunean jokatu zen Gartzainen Nafarroako Mendi Duatloi txapelketa. Azkeneko urteetan txapeldun izan den Mitxel Aginaga narbartearrak ez zuen parte hartu, bizkarreko minarekin baitabil. Seigarren aldiz antolatu du Gartzaingo Kirol taldeak txapelketa hau, herriko besten barnean eta ortziralean 54 txirrindularik hartu zuen parte:. 22 kilometro egin behar zituzten, lehendabiziko bortzak lasterka, 15 bizikletan eta azkeneko 2,5 berriz ere lasterka. Barañaingo Pablo Arrastiak irabazi zuen proba (1h 9' 43"). Zaragozako Luis Antonio Garcia sartu zen ondotik, 45 segundura. Hirugarren postua Carlos Huesorentzat izan zen. Xabier Arraztoa baztandarra seigarren izan zen, (1 h 15' 33") eta Xabier Prieto beratarra zazpigarren (1h 16' 5").




LEOARRA

**Podiuma osatu zuten hiru txirrindulariak.**

# AGENDA egunez egun

### MUSIKA

**ARESO**

**Azaroaren 4n** Ipar Doñua Abesbatzaren emanaldia elizan, goizeko 11,30etan. Udazkeneko Biraren barnean.

**ELIZONDO**

**Azaroaren 4an** Danburia (Musica Pyrenaei) taldearen emanaldia Arizkunenea Kultur Etxean arratseko 8etan.

**Azaroaren 11n** Wafer S. Gribil & Cherbo More aldearen emanaldia Arizkunenea Kultur Etxean, arratseko 8etan.

**Azaroaren 18an** Kantiruki taldea (Iparraldeko ahotsak) Arizkunenean, arratseko 8etan. 2001eko Folk Ametsetan Zikloaren barne dira hiru kontzertuak.

### BERTSOAK

**LESAKA**

**Azaroaren 3an** Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusiaren kanporaketa saioa udal pilotalekuan, arratsaldeko 6etan: Xabier Silveira, Aitor Mendiluze, Ainhoa Agirreazaldegi, Arkaitz Ugartetxea, Iratxe Ibarra eta Asier Otamendi.

### ZINEMA

**LEITZA**

**Azaroaren 2an** 20.30etan «Amores Perros» filmea.

**Azaroaren 4ean** 19.30etan «Amores Perros» filmea.

**Azaroaren 9an** 22.30 etan «El Planeta de Los Simios» filmea.

**Azaroaren 11n** 19.30etan «El Planeta de Los Simios» filmea.

**ITUREN**

**Azaroaren 2an** Zine emanaldia 22:30etan. Herriko Etxeko ganbaran. Pelikula dibertigarria.

## TELEBISTAKO TXOKOA




TELEBISTA, EUSKAL KULTURAZ BLAI

# Arantzako Kultur Egunek eta feriek beteko dute pantaila

Joan den astean Elizondon eta Beran egin ziren udazkeneko feriekin batera Arantzan dena prestatzen ari dira herriko kultur egunei aurre egiteko.

Aste honetan bertan hasiko dira kultur egunak, Domisaindu egunean, eta azken urteotan bezala Baserritarren eguneko azokak hartuko du ekitaldi guzien artean protagonismo haundiena. Ekaitza elkartearen besta ederki apaindua etorriko da bertze urte batez, azoka beraz gain, musika eta bertsolariekin. Ez dudarik egin, gure kamarak han izanen dira gertatutako guzia grabatzen, beraz, Arantza aldera joaterik ez duzuenok badakizue nora jo. Baina ez da hor bukatuko kultur egunetako egitaraua beraz oraindik kultur egunen berri emanen dugu gure programetan. Ortziralean, Jakoba Errekondok baratzeen eta landaree inguruko hitzaldia eskeiniko du eta larunbatean haurrentzako eskulan tailerrak eta Jon Bergaretxere kantariaren emanaldiak izanen dituzte Arantzan.

**JOKOA SOLAS**

Aitor Arotzenak gidatzen duen kirol saioak dagoeneko ekin dio denboraldi berriari. Eskualdeko kirol munduaren berri izateko modurik erosoena eskeintzen dizu Jokoa Solasek, astelehenero, albistegiaren ondotik.

## DISKAK




*«Igelaren banda»*

### Igelaren Banda

*LAIDA (ELKARLANEAN)*

Igelaren Banda 1998an sortu zen. Taldeko partaideak Bixente Martinez, Txarli de Pablo eta Iñigo Egia dira eta hauen helburua, euskal doinu eta melodia tradizionalekin doinu berriak sortzea da. Jazz edo musika berrietatik ikasitako ereduak erabiltzen dituzte berezko nortasuna galdu gabe. Taldekideak aspaldtik euskal musikan ari dira talde zein proiektu ezberdinetan parte hartzen. Oskorri taldean nagusiki baina, baita Hiru Truku, Kepa Junkera, Ruper Ordorika, Joseba Tapia, Barraca Selva La Ferreteria del Son, eta Oreka TX bertzeak bertze. Laida (Elkar/Elkarlanean) da, Igelaren Bandaren lehen disko eder eta aberats hau argitaratzen duen azpizigilu berria. Igelaren Bandaren lehen disko hau sei egunez grabatu eta nahastu zen 2001eko abuztuan.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(Urriaren 11tik 19rako prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**
(19 kilo): 5.000 pta.

**Zerri gizena**
(95-100): 180 pta/k.

**Zerramak:**
190/111 pta./kiloa, bizirik.



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 540
**1.koa** 520
**2.koa** 500
**Urruxak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 550
**1.koa** 530
**2.koa** 510

Oharra: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen dulen aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Nabarrak:** urruxak 36.000 eta idixkoak 29.000 Pta.

**Mestizoak:** urruxak 41.000 eta idixkoak 39.000 Pta.

**Zaldikoak: Pta/k**
Sortuberriak: 555/565
Zaldi-behorrak: 375/385

**Bildotsak:** Pta/k
6-8 kilokoak: 1.375-1.425
8-10 kilokoak: 1.250-1.300

## JAKIN BEHARREKOAK



# Lotsa edo gizarte fobia

Pertsona lotsatiei, eguneroko bizian gertatzen diren zenbait egoera gainditzea aunitz kostatzen zaie. Helere saiatuta egoerei aurre egin diezaiekete. Pertsonak sentitzen duen antsietatea larritasuna edo ikara bihurtzen denean arazoa sortzen da. Besta batera joatea, jendaurrean hitzegitea, dendan erostea, bertze norbaiti begietara begiratzea eta antzeko ekintzak burutzea ezinezkoa izanen zaio pertsonari. Egoera hauek saihesteko hainbat aitzaki jarriko ditu.

**Ondorioak:**

Arazo hau duenak aunitz sufritzen du (bertzeen aitzinean disimulatzen badu ere). Mentalki gizakia ongi badago ere, ezin du beldur hori gainditu. Gizartearenganako fobia duenak tontoa eta aspergarria dela uste du. Mundu guztiak epaitzen duela uste du, bere buruarekiko arras kritikoa da eta ezertarako balio ez duela pentsatzen du. Depresiora eta erabat baztertzera eraman dezake eritasun honek.

*«Gizarte fobia duenak mundu guztiak epaitzen duela uste du, bere buruarekiko arras kritikoa da eta ezertarako balio ez duela uste du»*

**Fobia motak:**

Gizarte fobia banakakoa edo orokorra izan daiteke. Banakakoa bizitzako alderdi konkretu bateri eragiten dionean. Orokorra giza egoera guztiei eragiten dienean.

**Eritasuna sendatzeko tratamendua:**

-Erlajazioa.

-Giza-trebetasunetan saiatu. (Adib. ezezagun batekin elkarrizketa izaten ikastea)

-Arazoari aurre egiteko terapia. Pertsona, antsietatea eragiten dion egoeran jartzen da eta erlajatzen erakusten zaio.

-Ezagupenaren terapia. Dugun egoera animikoaren arabera pentsatzen dugunez, pentsatzeko era aldatzen erakusten zaio eriari.

-Botiken tratamendua.

**Bibliografia:** Evaluación y tratamiento de la fobia social. Ed Martinez Roca (1995). Echeburua.

**Rakel AMIGO**

## LIBURUAK



*Zaraitzuko Hiztegia*

**Aitor Arana**

*Nafarroako Gobernua*

Aitor Arana historialariak "Zaraitzuko Hiztegia" aurkeztu berri du. Desagerturik dagoen Zaraitzuko euskalkia osatzen zuten hitzak lan honetan bildu ditu. Bere helburua ez da euskalki hau berreskuratzea, euskalzaleendako erabilgarria den tresna izatea baizik. Hiztegian ia 6000 hitz bildu ditu Aranak. Lana osatzeko Ezkarotzen bizi den Antonia Gartzia Loperenaren laguntza izan du. 88 urterekin oraindik zaraitzuera gogoratzen du, 60 urtez euskaraz solatu gabe egon bada ere. Hiztegiak 405 orrialde ditu eta, Nafarroako gobernuak eta "Hiria Liburuak" argitaletxeak argitaratu dute.

Zaraitzuera Otsagabia, Ezkarotze, Espartza edo Orontze herrietan hitzegiten zen. 1860. urtean 3.100 hiztun inguru zenbatu zituzten, 1972an ordea 327 ziren. Egileak aipatutakoaren arabera gaur egun, euskara bailaran ez da galdu biztanleen %20ak batuaz hitzegiten dakielako.

# AGENDA egunez egun

### BESTAK

**AURTIZ**

**Azaroaren 10etik 13ra** San Martin bestak.

### ANTZERKIA

**BERA**

**Azaroaren 11n** Gilikbaro Antzerki taldearen «Trokaolatarrak» Zizka Ostatuan arratseko 8etan.

**Azaroaren 18an** Ander Lipus-en «Minutu bakarra» Bidaxka ostatuan arratseko 8etan. III. Kafe Antzerki Zikloaren barnean.

### ERAKUSKETAK

**ELIZONDO**

**Urriaren 30etik azaroaren 12ra** Jose Ramon Sanchez haur-liburuen irudigilearen «Don Quijote de la Mancha» erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean. Lan egunetan, 18:30etatik 20:30etara.

### SOLASALDIAK

**ELIZONDO**

**Azaroaren 9an** Pedro Mari Esarte historialari elizondarrarekin Nafarroako historiari buruzko solasaldia, «Navarra 1512-1530» liburua hizpide hartuta.

### GUARDIAKO BOTIKAK

**Urriaren 29tik azaroaren 4ra**

Etxalar, Sunbilla Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

**Azaroaren 5etik 11ra**

Lesaka, Ituren, Irurita eta Goizueta.

**Azaroaren 12tik 18ra**

Arantza, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

**…RAJEAK/LOKALAK**

**…9 Errentan eman**

**…GASA.** 450m²ko nabea …katzen da. ☎ 629 348 491

**…ERA.** Telefonica etxe az… **…garajea errentan** eman …n da. ☎ 948 631 033 (arra…tseko 8etatik aitzin).

**…ERA.** 500 m²ko pabiloi in…triala errentan ematen da. …67 538 041

**…ETZA. Olalde Taberna-Ja…tetxea alokatzen da.** ☎ 948 …819 • 948 510 417 (arra…tseko 2etatik 3etara, aza…ren 10a arte).

**…RAJEAK/LOKALAK**

**…1 Bertzelakoak**

**…OAIN. Harategi** modernoa **…raspasatzen** da, bezero au…rekin, ezin dugulako aten…. ☎ 948 630 054 • 620 …7 359

**…RRAK/ORUBEAK**

**…2 Saldu**

**…LXAIAGA.** 2.400 m²ko lur …masalgai. ☎ 667 538 041

**…NA**

**…1 Eskariak**

…ska bat **eskeintzen** da …ran etxeko lanak egin edo …umak eta adinekoak zain…ko. ☎ 647 293 306

**…zaina eta ezindu psiki…en hezitzaileak**, gaixoak, …nekoak, ezindu psikiko… **…zainduko** lituzke ospita…n, etxean... Gauez nahiz …nez. ☎ 655 704 629

**…NA**

**…2 Eskaintzak**

**…ETZA.** Torrea Herriko Ta…rnan **sukaldaria** behar da. …948 610 909

**…ONEZTEBE. Jostungin…a industrialeko** koopera…an emakume esperien…




tziadunak behar dira. ☎ 670 560 361

**IRUÑEA.** Sagardotegian lanean aritzeko **zerbitzaria** (neska edo mutila) eta **sukaldaria** behar dira. ☎ 948 125 401 • 686 561 525

Malerrekako ostatu batek **zerbitzaria** behar du, astebururetan lan egiteko. Gida baimena eta kotxea beharrezkoak, esperientzia badu hobe. ☎ 619 829 289

**Emakumea** behar da sukaldean aritzeko Ameztia Ostatu Jatetxean. Goizetan bakarrik lan eginen du. ☎ 948 450 028 • 617 333 015

**IRUN.** Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta haurra zaintzeko. Goizez ordu batzuk. ☎ 943 631 589

**MOTORRA**

**501 Salerosketak**

**Nissan Micra** ia berria salgai. 4.000 km. 1.100.000 pezeta. ☎ 948 580 128

**Citroen XSara 2.0, 16V** sal-


**MENDAUR MOTOR**
☎ 948 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Daewoo Korando 4x4, Defender, Mitsubishi 3 ate, Terrano 3 ate 125cv, Opel Frontera TDI, R-19, Golf TDI
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

# EHIZARI BURUZKO IX. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK

AZAROAREN 1etik 30era





Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako 11 jatetxek eskainirik uso, basurde, orein, erbi edo oilagorrez osatutako menuak aurkituko dituzu, betiko moduan edo era berrietan eginak.

2.500 eta 4.000 Pta. arteko menuak (ardoa eta BEZ kanpo)

Dena den, jatetxe guztiek beren ohiko karta eta zerbitzuak eskainiko dituzte.

Antolatzailea

## JATETXEAK

**ALMANDOZ**
Beola. .....✆ 948 58 50 02 - 948 58 53 08

**ARANTZA**
Barkala. ..............✆ 948 63 40 27

**BERA**
Zalain. ......✆ 948 63 09 67 - 63 11 06

**DONAMARIA**
Donamariako Benta .....✆ 948 45 07 08

**DONEZTEBE**
*Ameztia Erretegia. ....✆ 948 45 09 38

**ELIZONDO**
Eskisaroi. ..............✆ 948 58 00 13

**IGANTZI**
Igantzi. ....✆ 948 63 75 05 - 948 63 75 37

**IBURITA**
Olari. ..................✆ 948 45 22 54
Taberna del Fotografo. .✆ 948 45 20 87

**LESAKA**
Kasino. ...............✆ 948 63 71 52
Kochenta. ............✆ 948 63 75 19

LAGUNTZAILEAK

Nafarroako Gobernua

Noticias

CAN




# MUEBLES AMETS

**Sarrera BERAtik da**

*Alkaiagako industrialdean*

*Sastrin karrika, 3.2 - 3.4*

**31789 LESAKA**

*Tfnoa. 948 630 537*

*Fax. 948 631 443*

*Larunbat arratsaldetan irekia*



## 4.000 m²ko erakusketa mobleak ikustek







**Sukaldeak**

**Egongelak**

**Logelak**

**Bainugelak**